

PARLAMENTUARENTZAKO TXOSTEN BEREZIA

GIZA ESKUBIDEAK
ETA
PROSTITUZIOA
NAFARROAN



Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa

Parlamentuarentzako Txosten Berezia

GIZA ESKUBIDEAK
ETA
PROSTITUZIOA
NAFARROAN



**Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra•Nafarroa**

Izenburua: Txosten berezia: Giza Eskubideak eta Prostituzioa Nafarroan

Argitaratzailea: Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoa

© 2005eko otsaila

aurkibidea

1. SARRERA	11
2. GOGOETA OROKORRAK	17
2.1 PROSTITUZIO KONTZEPTUA	17
2.2 PROSTITUZIOAREN INGURUKO JARRERA JURIDIKOAK	18
2.2.1 Sistema debekuzalea	18
2.2.2 Sistema araudizalea	19
2.2.3 Sistema abolizionista	21
2.3 PROSTITUZIOA NAZIOARTEAN	23
2.4 ESPAINIAKO EGOERA	30
2.5 EUROPAKO BESTE HERRIALDE BATZUETAKO EGOERA	40
2.5.1 Herrialde araudizaleak: Herbehereak, Grezia, Alemania eta Txekiar Errepublika	40
2.5.1.1 Herbehereak	40
2.5.1.2 Grezia	43
2.5.1.3 Alemania	44
2.5.1.4 Txekiar Errepublika	45
2.5.2 Estatu abolizionistak: Belgika, Luxenburgo, Portugal, Frantzia eta Suedia	46
2.5.2.1 Belgika	46
2.5.2.2 Luxenburgo	46
2.5.2.3 Portugal	46
2.5.2.4 Frantzia	47
2.5.2.5 Suedia	48
2.5.3 Abolizionismoaren eta araudizaletasunaren arteko herrialdeak: Danimarka, Irlanda eta Erresuma Batua	50
2.5.3.1 Danimarka	50
2.5.3.2 Irlanda	50
2.5.3.3 Erresuma Batua	50
2.5.4 Abolizionismoa ala araudizaletasuna?	51
3. PROSTITUZIOAREN GIZARTE ALDERDIAK	59
3.1 PARTE HARTZAILEAK	59
3.2 PROSTITUZIOAN ARITZEKO MODUAK	63
4. PROSTITUZIOA ETA IMMIGRAZIOA	67
5. PROSTITUZIOAREN LAN ETA EKONOMIA ALDERDIAK	77

6. PROSTITUZIOAREN OSASUN ALDERDIAK	81
7. AFARROAKO EGOERA	91
7.1 EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOA KLUBETAN	93
7.2 EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOA APARTAMETUETAN	93
7.3 EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOA KALEAN	94
7.4 GIZONEZKOEN ETA TRANSEXUALEN PROSTITUZIOA	95
7.5 LAGUNTZA BALIABIDEAK	96
8. ONDORIOAK	103
8.1 PROSTITUZIOA, GIZARTE FENOMENO	103
8.2 ERREALITATEAREN BERRI HOBETO IZATEA	103
8.3 PROSTITUTEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA	104
8.4 LANBIDEA UZTEKO HAUTABIDEAK	104
8.5 OSASUN ESPARRUKO HOBKUNTZAK	105
8.6 ZERGA KONTROLA	106
9. GOMENDIOAK	109
10. PROSTITUZIOARI BURUZKO EKIMENAK NAFARROAKO PARLAMENTUAN	113
11. ARAUEN ERREFERENTZIAK	117
12. BIBLIOGRAFIA	121

1. sarrera

1. SARRERA

Honako txosten berezi honen amaierako erreferentziak irakurriz, ikuspegi zabala eta konplexua izango dugu ikuspegi hori bezain konplexua den prostituzioaren inguruan, dela ezin ekidinezko jarduera, dela borondatezkoa den aldetik; ikuspegi dokumentala gai honen gaineko gizartearen banaketaren inguruan; eta ohar garrantzitsuren bat prostituzioak dakartzan ondorio askotarikoen inguruan.

Gaurkotasunak komunikabideetako ezbeharren eta delituen ataletan sartu ohi badu ere prostituzioa, herritar talde bat herritar den heinean izan beharko lituzkeen oinarrizko eskubideei dagokien mailaren azpitik bizi da etengabe, kronika beltz edo arrosa horretatik harago. Askatasunez onartzen dela, testuinguru sozial, ekonomiko eta baita politikoaren ondorioztat onartzen dela, prostituzioa ez dago aske ez Nafarroan, ezta Espainiako gainerako lurraldeetan eta zibilizatutako gainerako herrialdeetan ere, jarduera hori giza egoeraren eta talde horren eskubideen alde egin beharraren ikuspuntutik egoerarik apalgarrienetakoa bihurtzen duten baldintzatzaileetatik.

Errealitate hori azaleko bihurtzeak edo errealitate hori ulertzeko aplikatzen den hipokrisiak ezin dute urradura horren larritasuna gutxitu inola ere, sexu prostituzioan diharduen pertsona taldea gutxiengoa izan arren, lan horrek diru sarrera horietan zinez parte hartzen dutenei (partikularrei, elkarteei, autonomia komunitateei, Estatuari...) dakarkien onura handia izan arren, edo gizartearen zati bat bihozgabea izan arren gizarte bereizkeria behartuaren adibide garbiak direla-eta.

Esklabotasun eredu zahar hori ez dator bat da bere burua ekonomikoki garatu eta sozialki aurreratutzat duen gizartearekin, eta haren ondorioek bultzatu dute Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak honako txosten berezi hau egitea Nafarroako Parlamentuarentzat. Nabarmenak dira gizartearen bilakaera positibo ororen abantailak, eta bilakaera horretarako erabakigarriak enplegu maila handiagoa eta herritarren ongizatean berrinbertituko duen zerga politika egokia; hein berean, salatzeko modukoak dira gizartearen bulkada hori besteren ongizatearen kontura ez ezik, bestek gizakia den heinean izan beharko lituzkeen oinarrizko eskubideak saltzearen edo debekatzearen kontura ere gertatzen diren adibideak.

Gaitza dela, lana dela, Arartekoaren asmoa ez da prostituzioaren gaineko iritzi moralik ematea; aitzitik, askatasunez aukeratu badute, praktikatzen dutenek euren buruak babestu eta praktikatzen ez dutenek dituzten eskubide berak mantentzen dituzten eskatzea da asmoa. Hartara, osotasunean eta bortxarik gabe erabiliko dituzte eskubide indibidualak, eta prostituzioan jarduten direnen berme eta betebeharrak sozial eta ekonomikoak zainduko dituen arauzko oinarria izango du prostituzioak, lan jardura den aldetik.

Ez dago erdibiderik, prostituzioa arautzearen aldekoak direnen eta prostituzioa ezeztatzearen alde egiten dutenen arteko jarrera distantziakiderik; giza eskubideak eztabaida honetan sartzea ezin da eztabaidaren alde batean edo bestean kokatu, edo gainean. Eztabaida abiatu ondoren, beharrezkoa da pertsonaren oinarrizko eskubideen babes begiratzaila dagoen puntu doiaren alde egitea erantzukizunez. Prostituzioari buruzko eztabaida gizartearen bilakaerak bihurtu du lehen mailako, eskubidea (lan egiteko, gorputza erabiltzeko) ala eskubide urradura den heinean. Ordura arte, prostituzioaren gaineko ikuspegiak esklabotasuna, ustiapena eta andeatze fisiko eta psikikoak besterik ez digu eman, eta alderdi horiek guztiak prostituzioa zuzentzen duen printzipio nagusiaren ondorio dira, adierazpide krudelenaren aldetik: batzuen onura ekonomikoa betiere ahulagoa den besteren segurtasunaren gainetik.

Bi konstanteok (onurak eta ustiapenak) indarrean jarraitzen dute gaur egun, baina beste bat gehitu zaie: gizartearen harmena; izan ere, sistemaren bazterreko sistema aldatzeko eskatzen hasi da. Jarrera hori ere baliozkoagoa da, prostituzioan beharrezko aritzea gutxienena den heinean.

Hala izan da orain arte behinik behin. Emigratuz lan eta gizarte esparru hobe bilatu nahi duten beste herrialde batzuetako herritarrak iritsi direla-eta, herrialde edo lurralde bateko biztanleria %10 ere hazten bada, ordea, planteatzea dago prostituzioa ongizatea eskuratzeko biderik ustez azkarrenetakoa dela. Are gehiago, ez dago prostituzioaren inguruko auzia aztertzerik Nafarroan -lehen ere ezin zen halakorik egin herrialde pobregoaetan- hirugarren konstantea kontuan hartu gabe: nor aritzen den prostituzioan.

Ardura duten administrazio publikoen pasibotasuna gorabehera, Arartekoak lan sektore batzuetan nagusi den araudirik eza deskribatu du aurreko txostenen bitartez, eta hainbat gizarte eragilek etorkinen eskubideen

mesederako esku hartzea eta araudia eskatu du gero: lan arloko eskubideen mesederako esku hartzea eta araudia ere eskatu du baina, horiez gain, etorkinak gizakia den heinean izan beharko lituzkeen eta esklabotasunetik eta ustiapen ekonomikotik urruntzen duten oinarrizko eskubideen mesederako esku hartzea eta araudia.

Prostituzioa Nafarroako gizartea aldatzearekin bat aldatu da: biztanleria handiagoa, maila ekonomiko handiagoa, komunikabide berriak. Batez ere, emakumezko etorkin gazteagoek erantzuten diete gaur egun bezeroen beharrei; batez ere, ekonomikoki eta sozialki ahulak diren eta eragin handiko baldintzatzaileen mende ("legezkotasunaren" edo "legez kontrakotasunaren" mende) dauden herritarrek erantzuten diete gaur egun bezeroen beharrei. Hortaz, bi aldetatik dira ahulak.

Hain zuzen ere, prostituzioan bizibidea ateratzeko (?) jarduten direnek esklabotasunean eta gizarte bazterketan erortzeko arriskua dutelako, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak honako txosten berezi hau egin du, Nafarroako Parlamentuari ikuspegi artatsua ematearren Komunitateko prostituzioaren errealitatearen inguruan, baita beste herrialde batzuetan gai hau dela-eta piztutako eztabaidaren eta hartutako neurrien inguruan ere, nahaspilatsua ere izan litekeen arren indarrean dagoen araudiari buruzko informazioari dagokionez.

Azkenik, txostenaren helburua da Foru Parlamentuari eta Nafarroako Gobernuari eskatzea neurririk egokienak hartzeko lehenbailehen, Komunitatean prostituzioan diharduten pertsonen eskubide indibidual eta kolektiboak bermatzeko, horiek ere Komunitateko kide diren aldetik.

María Jesús Aranda Lasheras
Nafarroako Arartekoa

2. gogoeta orokorrak

2. GOGOETA OROKORRAK

2.1 PROSTITUZIO KONTZEPTUA

"Prostituzio" hitzak latinezko "prostituere" hitza du jatorri, "desohoratu, ohorea kendu" edo "orbandu, zikindu" esan nahi duena; azken batean, "laidoztatu".

Hitz horrek merkataritza harreman jakin bat ezartzen den jarduera multzoa izendatzen du. Sexua diruaren trukean aldatzen da merkataritza harreman horren bitartez, eta dirua sexuarekin lotutako jardueraren baten trukean aldatzea jazotzen den milaka merkataritza jarduera sartzen da definizio horren barruan: masaje etxeak, webgune erotikoak, harremanak edota lagunak egiteko iragarkiak, lentzeria erotikoa saltzea, preserbatiboak....

Honako hau baieztza genezake, alegia, prostituzioa apenas araututako esparrua dela gizartearen ikuspuntutik, sexua familiarik kanpo trukatzeko, eta sexuaren industriaren sektoreko zati bat dela ekonomiaren ikuspuntutik.

Auzitegi Gorenaren 1999ko apirilaren 7ko epaiarekin bat, prostituzioa sexu zerbitzuak prezio baten trukean ematea dakarren jardueratzat jo liteke, eskuarki eta oro har egiten bada.

Jarduera honetan aritzeko askatasun esparruari dagokionez, bi ikuspegi nagusi daude:

Borondatezko ikuspegiak pertsonak askatasunez aukeratu duela dakar, gorputza bera eta sexualitatea bititzea barne. Ikuspegi honen arabera, guztiok saltzen dugu gure pertsonaren alderdiren bat lan merkatuan; hortaz, ezin da gorputza salgai bihurtzea gaitzetsi, hautu pertsonal zilegia denez gero. Hautu aske bat delako ustean oinarrituta, jarduera honen legezkotasuna eskatzen da. Prostitutak betebeharrak eta eskubideak dituzten langiletzat hartu behar dira, eta euren

jendaurreko ikusgaitasuna eta lan eskubideak onartzeko eskatu, baita bitartekariak desagerrarazteko ere, litekeena bada.

Ikuspegi deterministak, berriz, ekonomia, gizarte, kultur, sexu eta psikologia baldintzatzaileei ihes egiteko irtenbide ezin saihestuzkotzat azaltzen du prostituzioa. Ikuspegi honek gizarteak oro har duen erantzukizuna planteatzen du, milaka emakumezko prostituziora bultzatzen duten baldintzak errepikatzen laguntzen duenez gero; prostituzioa da emakumezko horiek duten irtenbide bakarra. Determinismoaren ondorioak desagerraraziz gero, prostituzioak bere horretan jarraitzen badu baino ez dugu onartu behar borondatezko oinarria. Ikuspegi honen arabera, jarduera honek salgaien pare jartzen du emakumezkoa, objektu kategoriara murrizten du, eta giza eskubideak urratzen ditu, sexu indarkeria eta tratu apalgarria dakartzalako; esklabotasun mota bat da, ez dielako euren bizitzako oinarrizko baldintzak aldatzea ahalbidetzen emakumezkoei.

Prostituzioa delitua den aldetik: parte hartzen dutenak zigortzea eta lokalak desagerraraztea

2.2 PROSTITUZIOAREN INGURUKO JARRERA JURIDIKOAK

Herrialde gehienek honako hiru sistema hauetako bat aukeratuz egiten diote aurre fenomeno honi gaur egun: jarduera toleratu eta arautzen duena, debekatu eta zigortu egiten duena, edo existitzen dela onartu eta erauztearen alde borrokatzen dena.

2.2.1 Sistema debekuzalea

Estatuak prostituzioan ezinbestean esku hartzen duten hiru alderdiak zigortzen ditu: prostituitutako pertsona, proxeneta eta bezeroa. Prostituzioa delitutzat hartzen da, eta jarduera honetan aritzeko lokalak desagerrarazten dira. Araudi honekin bat, prostituta gaizkiletzat hartzen da, prostituzioaren biktimatzat hartu beharrean.

Sistema honetatik hurbil daude Ameriketako Estatu Batuetako, Txinako eta beste zenbait herrialdeetako legediak.

Sistema hau gaitzesten dutenen ustez, arazoa kontrolatu baino gehiago, debekuak prostituzioan isilpean aritzea bideratzen du, eta prostituzioa ustiatzen duten erakundeak azaleratzea.

Prostituzioa lan jarduera den aldetik: horretan aritzen dena gizarte eta lan eskubideak dituen langiletzat hartzen da

2.2.2. Sistema araudizalea

Sistema araudizalearen oinarria da prostituzioa ezin saihestuzkoa delako ustea; hortaz, gizarteak prostituzioa existitzen dela onartu behar du, gizarte helburua duenez gero. Legeztatzeak prostituzioa beste jarduera profesional bat dela onartzen du: prostituzioan aritzen dena langile bihurtzen du, eta gizarte eta lan eskubideak egokitzen dizkio. Arautzearen ondorioz, jardueran esku hartzen duen hainbat elementu kontrolatzeko sistema ezartzen da. Araudizaleek honako honi eusten diote, alegia, prostituta askok borondatez aukeratu dutela prostituziotik ateratzea bizibidea, eta hautu hori errespetatu egin behar dela, euren jardueran osasungarritasun eta segurtasun baldintza onetan aritzeko beharrezko neurriak hartuz. Halaber, honako honi eusten diote, alegia, lege estaldurarik ezak jarduera hau estigmatizatzea sendotzen duela; horregatik, helburua lanbide hau duin bihurtzea baldin bada, beharrezkoa da ofizialki onartzea.

Prostituzioa duintzea bada helburua, ofizialki onartu behar da

Sistema honen arabera, kontrol publikoak egiten zaizkie prostituitzen diren pertsoneri, osasun arlokoak batez ere, eta debekatuta eta zigortuta dago isilpeko prostituzioan aritzea kontrol publikotik kanpo. Batzuetan, prostitutak erregistro berezietan izena ematera behartzen dituzte, eta prostituzioan bezeroentzako arriskurik gabe jardutea ahalbidetuko dieten osasun egiaztagiria lortzera. Baimenduta dago jarduera hau kontrolatzeko lokalak izatea, diru iturri direnez gero. Hala eta guztiz ere, halako zerbitzuak eskatzen dituzten bezeroak kontrol orotatik kanpo daude.

Legediari dagokionez, teoria araudizaletik hurbil dauden herrialdeen artean, nabarmentzekoak dira Alemania, Austria, Mexiko eta Herbehereak.

Jarduera arautzearen kontra egiten dutenek honako hau argudiatzen dute, alegia, arautzeak jarduera hau finkatzea bideratzen duela prostituitzera behartuta dauden emakumezkoen duintasunaren kontura, prostituzioa gizarte zerbitzu beharrezkoa bihurtzen duela, eta gizarte egituran barneratzen duela, zergak, osasun azterketak eta beste administrazio neurri batzuk ezarriz; aldi berean, emakumezko gehienek prostituzioa dela-eta nozitzen duten indarkeria erreala txikiagotzen omen du.

Ikuspegi horren arabera, arautzeak proxenetei eta bezeroei bakarrik ekartzen die onura; izan ere, proxenetek legez atera dezakete etekina, eta bezeroek, berriz, bermatuta dute prostituten kalitatea eta osasungarritasuna. Aitzitik, prostituzioa arautzea prostituten beren kalterako da, legezketasunetik kanpo uzten baitu araudiaren bitartez xedatutako bideen arabera egokitzen ez den oro. Araututa dago legezko prostituten estatutua, jarduera hau erregistro ofizialetan eta administrazio erregistroetan agertzen baita, etorkizunean jardueraren beste edozein sektoretako aukera profesionaletan izan litezkeen ondorioetarako. Horrexegatik, emakumezko askok ez dute izena eman nahi erregistroan, izengabetasuna atxikitzeko, eta herrialde araudizaleetan ere erregistroan izena eman lezaketan emakumezko askok legez kontra eta isilpean jardutea aukeratzen dute.

Isilpeko prostitutei dagokienez -Espainiako sektore nagusia da, dokumenturik gabeko etorkin ugari dagoenez gero-, legez kanpo zeuden prostituzioa arautu aurretik, eta legez kontra daude ondoren. Hartara, euren bizi baldintzek okerrera egiten dute, eta indarkeriaren biktimak izateko aukerak ugaritzen dira. Beste ondorio negatibo bat da prostituten osasun arloko kontrolak bezeroen artean sor dezakeen segurtasunezko irudipen faltsua, gaixotasun benereoko kutsatzea saihesten duten prebentziozko neurriak erabiltzearen aurkako jarrerak sendotzen baititu.

Isilpeko prostitutak legez kontrako bihurtzen dira, eta euren bizi baldintzek okerrera egiten dute

Legez kontrako sektorea nabarmen hazi da, haur prostituzioari dagokionez, batez ere

Prostituten osasun arloko kontrola baztertzaila da, ez dituelako bezeroek kutsatutako gaixotasunetatik babesten

Prostituzioa legeztatzearen alde egiteko beste arrazoibide bat da elementu kriminalak desagerrarazten dituela. Sistema hau gaitzesten dutenen ustez, ordea, legez kontrako sektorea nabarmen hazten da legeztatutakoaren ezkutuan jarduera hau legeztatu den herrialdeetan, eta haur prostituzioa haztea sustatzen du, etorkin jatorria duten haurrena batez ere.

Gainera, sistema hau kritikatzeko dutenek argudiatzen dute, lege trabak desagertzen badira, traba sozialak eta etikoak ere desagertzen direla, eta sexuaren trukean ordaintzen arriskatu ez liratekeen gizonezko askok prostituzioa onargarri eta arriskurik gabekotzat jotzea eragiten duela horrek.

Azkenik, prostituzioa legeztatzean oinarritutako sistema baztertzaila da nabarmen, prostituitzen diren pertsonak behartzen dituelako mediku azterketak egitera, baina ez bezeroak. Izan ere, pertsona horiek kontrolatu arren, ez dituzte babesten hiesetik eta bezeroek kutsa diezazkieketen sexu bidez transmititutako gaixotasunetatik.

Sistema honen aldaera bat legalista da: prostituitutako pertsonen aurkako ezein lege kalte desagerrarazi nahi du, eta prostituzioa beste jarduera profesional bat dela onartu. Hartara, prostituzioan aritzen dena langile bihurtzen du, eta gizarte eta lan eskubideak eta betebeharrak onartzen dizkio.

2.2.3 Sistema abolizionista

Nazioarteko Federazio Abolizionista buru izan zuten eztabaiden ondorioz sortu zen; Federazioa 1875. urtean jaio zen, prostituzioa arautzearen kontra borrokatzeko, eta haren printzipioak 1949ko abenduaren 2ko Nazio Batuen Erakundearen Hitzarmeneko testuan sartu zituzten.

Prostituzioa eta pertsonaren duintasuna ezin bateratuzkotzat jotzen ditu. Ez du debekatzen, baina

dakarren ustiapena deuseztatzen ahalegintzen da, eta egokitu ezintasun soziazat hartzen du. Prostitutak birgizarteratzea du helburu, proxenetak zigortzea eta bezeroei atzera eragitea.

Sistema honen arabera, antolamendu juridikoak prostituzioan jardutea despenalizatzen du, eta prostituitzen den pertsona jardueraren beraren biktima bihurtzen du. Zigor arauk besteren prostituziotik etekina ateratzen dutenen jardunbidea bakarrik tipifikatzen dute, biktimak adostasuna eman duen ala ez kontuan hartu ezean.

Sistema honen jarraitzaileek (besteak beste, Sexu Indarkeriaren aurkako Erakunde Feministen Sareak) gizonezkoentzako eta emakumezkoentzako aukera berdintasunerako politketan sakontzearen alde egiten dute, halako etorkinentzako politika espezifikoak ezartzearen alde, osasun estaldura herritar guztiei ematearen alde -lan merkatuan barneratuta dauden ala ez gorabehera-, kontribuziozkoak ez diren pentsioak baliabiderik eta baliabideak lortzeko aukerarik ez duten pertsona guztiei ematearen alde...

Sistema hau ezartzearen helburua da pertsonen sexu salerosketa ekiditea, prostituzioaren inguruko araudi oro deuseztatuz, klubak itxiz eta prostitutek polizia eta osasun erregistroetan izena eman beharra desagerraraziz. Sistemari dagokionez, Frantzia, Belgika eta Italia daude teoria abolizionistatik hurbilen dauden gure kultur inguruko herrialde nagusien artean.

Sistema hau gaitzesten dutenek nabarmentzen dutenez, jarduera honetan aritzen diren pertsonak profesionalki onestea galarazten da sistema honen bitartez; hortaz, ezin dituzte euren lan baldintzak hobetu, ezta gainerako langileek dituzten gizarte onura berak eskuratu ere.

Horrek guztiak prostituzio forma orotan isilpean aritzea bideratzen du, ustiatzaileen irabaziak emendatzen ditu,

Prostituzioa bateraezina da pertsonaren duintasunarekin

Prostituta biktima da, eta proxeneta zigortzen da, biktima ados egon den ala ez gorabehera

Pertsonen sexu salerosketa deuseztatzea da helburua

Ez dago onespén ofizialik.
Ez dira euren lan
baldintzak hobetzen

eta prostituzioan aritzen diren pertsonen osasunerako arriskuak larriagotzen ditu.

Emakumezkoen
nazioarteko trafikoa
itotzea eta kontrolatzea

2.3 PROSTITUZIOA NAZIOARTEAN

Estatuetakoko legedien osotasuna ez zen nahikoa nazioarteko garrantzia zuen fenomeno baten aurka borrokatzeko, alegia, emakumezkoen trafikoa aurka borrokatzeko. Emakumezkoen trafikoa nahiko azkar hedatzen ari zen XIX. mendearen amaieraz eta XX. mendearen hasieraz geroztik.

Egoera berri horren ondorioz, hitzarmen lotesleak egin zituzten nazioartean, arazoa ito eta kontrolatzeko helburua zuten ekintzak koordinatzearen.

Horietako lehenengoa 1904ko maiatzaren 18an sinatu zuten Parisen, eta Pertsonen Trafikoa eta Besteren Prostituzioaren Ustiapena Itotzeari buruzko Hitzarmenak berretsi zuen; Hitzarmena Nazio Batuen Erakundearen IV. Batzar Nagusiaren Ebazpenak onartu zuen New Yorken 1950eko martxoaren 21ean. Tresna horrek aurreko testuak bateratu zituen, eta munduko herrialde gehienek bat egin duten araudirik modernoena da, baita Espainiak ere 1962an. Arau horiekin bat, "nazioarteko trafikoa" kontzeptua "emakumezko bat bizi ohi den herrialdea ez den beste herrialde batean prostituitzeko biltzea" dela interpretatu behar da. Definizio horrekin bat, ez da beharrezkoa indarkeria edo adostasunik eza izatea emakumezkoen trafikoa izan dadin.

1950eko Hitzarmena onartu ondoren, norabide aldaketa izan zen prostituzioaren tratamenduan. Prostituzioaren ekonomia eta gizarte arazoietan sakontzeko joera izan zen ordutik aurrera, eta proxenetismoaren eta emakumezkoen sexu ustiapenaren aurkako estrategiak ezartzeko.

Besteak beste, nabarmentzekoa da Mexikon 1975. urtean egindako Emakumezkoen Nazioarteko Urteko Mundu

Mailako Biltzarra. Emakumezkoen eta emakumezko gazteen prostituzio behartua galarazteko neurriak hartzeko eskatu zitzairen bertan gobernuari.

Urte batzuk geroago, Kopenhagen 1980. urtean egindako Mundu Mailako Bigarren Biltzarraren kariatara, "munduko prostituzioari, haren arrazoiei eta hura bideratzen duen egoera sozio-ekonomikoari" buruzko txostena emateko eskatu zitzaion idazkari nagusiari.

Nazio Batuen Erakundearen barruan, Delinkuentzia Antolatu Transnazionalari buruzko Biltzarra egin zuen Pertsonaren Giza Eskubideak Sustatzeari eta Babesteari buruzko Azpibatzerdeak 2000ko azaroaren 15ean. Biltzarra Palermoko Protokoloak osatu zuen data horretan bertan, eta Espainiak biak ala biak berretsi zituen 2002ko otsailaren 21eko tresnen bitartez. Helburua pertsonen trafikoa prebenitu, ito eta zigortzea zen, emakumezkoena eta haurrena batez ere, eta gizakien trafikoaren inguruko planteamendu globala eratu zuen. Biktimen tipifikazioa, babesa eta laguntza hartu zituen barnean, baita fenomenoaren prebentzioa ere.

Halaber, migratzaileak lehorrez, itsasoz eta airez legez kontra trafikatzearen aurkako 2000ko abenduaren 15eko protokoloa eta emakumezkoen aurkako bazterketa mota oro desagerrarazteari buruzko biltzarra ditugu; Espainiak protokoloa berretsi zuen 2002ko otsailaren 21eko Tresnaren bitartez.

UNESCOk arreta berezia eman die azken urteotan emakumezkoen aurkako tratu txarrei eta sexu indarkeriari, baita euren osasunari eta duintasunari eragindako kalteei ere. Besteak beste, UNESCOren azterketek nabarmendu dute prostituta batzuk bizi diren isilpeko egoera; prostituta horiek lokaletan giltzapetuta daude, bizitza osoan batzuetan, eta torturak, tratu txarrak eta euren eskubiderik oinarrizkoenen aurkako era guztietako urradurak nozitu behar dituzte. Aldi berean, nazioarteko erakunde horrek nazioarteko bilerak egitea

Emakumezkoen trafikoa, emakumezko bat bizi ohiduen herrialdea ez den beste herrialde batean prostituitzeko biltzea

UNESCOk nazioarteko harremanak sustatzen ditu, proxenetismoaren eta emakumezkoen sexu ustiapenaren aurkako estrategiak finkatzearren

Prostituzioa emakumezkoen aurkako bazterketaren alderdirik larrienetakoa da

LANEren ustez, prostituzioa afera konplexua da, moral publikoan, gizarte ongizatean, delinkuentzian eta osasunean dituen ondorioak

sustatu izan du, prostituzioaren gizarte eta kultur arazoak analizatu eta proxenetismoaren eta emakumezkoen sexu ustiapenaren aurkako estrategiak finkatzearren.

Erakunde horren ustez, prostituzioa emakumezkoen aurkako bazterketaren alderdirik larrienetakoa da, eta hori da sexu bazterketaren aurka borrokatzeari ekin behar diren arazoia, hezkuntza eta prebentzio ekintzen bitartez, baita ikerketa programak landuz ere. Besteak beste, UNESCOk Mediterraneoko Emakumezkoen Egoera Bultzatzeko Programa sustatu du azken urteotan eta, hain zuzen ere, programa hori aplikatzearen gainekoak dira gure inguruko herrialde guztietako erakundeen artean izan diren eztabaidak, emakumezkoaren prostituzioari buruzkoak sexu ustiapenerako pertsonen trafikoaren ikuspuntutik.

Azkenik, Lanaren Nazioarteko Erakundeak egindako gomendioak aipatu behar ditugu, arazo honek gehien eragiten dien herrialde batzuetako prostituzioari eta sexu salerosketari buruzkoak. Erakunde honen 1998ko txosten batek ("The Sex Sector" txostenak), Asiako hegoaldeko prostituzioaren ekonomia eta gizarte oinarriak buruzkoak, onartu zuen prostituzioaren auziari heltzea ez dela inoiz erraza izan gobernuz kanpo, arazo horren barneko konplexutasunak eta sentsibilitateak direla-eta; izan ere, arazoak jatorria ekonomian badu ere, ondorio garrantzitsuak ditu moral publikoan, gizarte ongizatean, delinkuentzian eta osasunean ere. Sektorearen isilpeko izaera gehitu behar zaio egoera horri, beste konplexutasun elementu bat baita.

Hartara, herrialdeek prostituzioa legeztatu beharko luketen ala ez erabakitzea LANEren eskumenetatik kanpo dagoela onartu ondoren, hainbat gomendio eman ziren arazo honek eragiten dien gobernuei:

a) Haur prostituzioa erazteko proposatzea.

- b) Prostituten artean dauden egoera askotarikoak onartu, eta gehiegikeriak desagerraraztea.
- c) Prostituzioari eusten dioten egituretan jartzea arreta, prostitutengan jarri beharrean.
- d) Analisi makroekonomiko ofizialak egitea, sektorearen osasun arazoak balioztatu, prostituzioan aritzen direnekin tratatzeko beharrezko merkatu politiken garrantzia eta tamaina erabaki, eta zerga sistema sexuaren sektorearekin lotutako irabazizko jarduera ugaritara hedatzeko aukera aztertzea.
- e) Osasun alderdia aztertzea, prostituten artean ez ezik, baita bezeroen artean ere, honako hau hartuz kontuan, alegia, beste pertsona batzuekin batere babesik gabeko sexu harremanak dituzten pertsonak daudela sexuaren sektorearen eta biztanleriaren arteko katean.

Europari dagokionez, Europako Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuneko 5. artikuluko 3. atalak gizakien trafikoa debekatzen du, eta Hagako 1997ko apirilaren 26ko Ministerio Adierazpenak emakumezkoak sexu ustiapenerako trafikatzeko prebenitzeko eta haren aurka borrokatzeko Europako zuzentarauak xedatu zituen. Azkenik, Europako Kontseiluak 11. Gomendioa eta 1.545. Gomendioa onartu zituen 2000. eta 2002. urteetan, hurrenez hurren; 11. Gomendioa sexu ustiapenerako gizakien trafikoa buruzkoa zen, eta 1.545. Gomendioa, berriz, emakumezkoen trafikoa kontrako kanpainei buruzkoa.

Europako Batasunaren barruan, Europako Parlamentuak prostituzioaren ustiapenari eta gizakien salerosketari buruzko Ebazpena eman zuen 1989an, eta biktimizek salaketa aurkezteko aukera izateko bermeak eskatu zizkien estatu kideei, herrialdetik berehala kanpora

EBren ebazpen batek etorkinen egoitza eskubidea bermatzeko eskatu zuen, etorkinak pertsonen trafikoa aurkako epaiketen aurretik eta ondoren, eta epaiketek irauten zuten bitartean babestuz

zitzaten beldur izan ezean. Ebazpen horren ondoren, emakumezkoen trafikoari buruzko beste bat eman zuen 1993an, eta isilpeko immigrazioaren aurka borrokatzeko politika lantzeko eskatu zien estatu kideei, etorkinen egoitza eskubidea bermatu, etorkinak pertsonen trafikoari buruzko epaiketen aurretik eta ondoren, eta epaiketek irauten zuten bitartean babestu, eta emakumezkoen trafikoaren biktimei estatu kideen lurraldean bizitzea ahalbidetuko ziena, batez ere, aberrirratzeak euren segurtasun pertsonala edo berriro ustiatzea arriskuan jartzeko aukera bazegoen.

Gizakien trafikoari buruzko 1996ko beste Ebazpen batek biktimen segurtasuna eta duintasuna babesteko neurrien onespena du, euren ustiatzaileak salatzen badituzte; gainera, biktimak alderdi zibil izateko eskubidea bermatu zuen, baita arrazoi humanitarioengatikoa behin-behineko egoitza baimena eman eta lekukoa epaiketak irauten duen bitartean eta epaiketaren ondoren babesteko neurriak hartu ere.

EBk biktimen segurtasuna eta duintasuna babesteko neurriak onartu zituen, arrazoi humanitarioengatikoa behin-behineko egoitza baimena ematea bermatuz eta lekukoa babestuz

Halaber, sexu ustiapenerako emakumezkoen trafikoaren inguruko 1996ko azaroaren 20ko Adierazpenaren bitartez, honako honen inguruko aipamen esplizitua egin zuen Kontseiluak: "Epaiketetan lekukotasuna emateko prest dauden biktimen behin-behineko egoitza baimenari aterabidea emateko aukera, baita Justizia zerbitzuen eta Poliziaren arteko koordinazio egokia bermatzekoa ere, aurretiko aholku eskerik gabeko kanporatzea saihesteko". Europako Parlamentuaren 1997ko abenduaren 16ko Ebazpenak aplikatu beharreko elementu zehatzak zerrendatu zituen: behin-behineko egoiarrari dagokion estatutua, gizarte, osasun eta psikologia laguntza, lan baimena eta heziketa izateko aukera egonaldiak irauten duen bitartean...

Batzordeak emakumezkoen trafikoaren aurkako borrokaren esparruko neurri berrien inguruko Adierazpen bat aurkeztu zuen 1998ko abenduaren 9an. Immigrazio politikaren beharraren, eta auzitegien ahalmena

handitzearen arteko elkarrekintzaren garrantzi handia nabarmendu zuen: batetik, immigrazio politika horrek trafikoaren biktimen egoeraren arabera egokitu behar zuen eta, bestetik, auzitegiek trafikatzailerak zigortzeko zuten ahalmena handitu behar zen, berriz ekinaz trafikatzaileren aurkako eginbideak sustatzearen eta biktimak harrera herrialdean bizi eta laguntza izateko aukeraren arteko loturari.

2002ko uztailaren 19an, 2002/629/JAI Erabakia onartu zen, gizakien trafikoaren aurkako borrokaren ingurukoa. Erabakiak honela definitu zuen delitu hau: "gizakien trafiko, besteren prostituzioa ustiatu edo sexu ustiapenean beste modu batzuetan aritzearen, pornografian barne"; bestalde, ez zuen kontuan hartu biktimaren adostasuna proxeneta bere erantzukizunetik salbuesteko.

Estatu kide guztiek behar duten gutxieneko esparru komuna ezarri zuen arau horrek, trafikoaren prebenitzen laguntzen saihesteko, eta zigor eragingarri, tamainako eta atzera-eragileak hartu zituen barnean.

Europako Parlamentuko 2004ko apirilaren 21eko 803/2004/CE Erabakiak, berriz, Daphne II.a (2004-2008) Batasuneko ekintza programa onartu zuen, haurren, gazteen eta emakumezkoen gaineko indarkeria prebenitu, haren aurka borrokatu, eta biktimak eta arrisku taldeak babestearren; urtarrilaren 24ko 293/2000/CE Erabakiak abiatutako ildoari jarraitu zitzaion, hain zuzen ere, Daphne I.a programa (2000-2003) onartu zuen Erabakiak abiatutakoari.

2003ko urriaren 20ko Kontseiluaren Ebazpenak gizakien trafikoaren aurkako nazioarteko hitzarmen eta tresna guztiak erabat berretsi eta aplikatzeko eskatu zien estatu kideei, baita 1997ko apirilaren 26ko Hagako Adierazpena kontuan hartzeko ere; Hagako Adierazpenak emakumezkoen trafikoari buruzko nazio txostengileak izendatzea ahalbidetu edo horretarako aukerak aztertzea gonbidatu zituen estatu kideak.

Trafikoaren biktimen egoeraren arabera egokituko den immigrazio politika beharra eta, bestetik, auzitegiek trafikatzailerak zigortzeko duten ahalmena handitzea

Halaber, hainbat araudi dugu Batasunean, estatu kideen arteko polizia lankidetzeta eta lankidetzeta judiziala sendotzeari buruzkoa, delitu jakin batzuk jazartzearen - besteak beste, gizakien trafikoa-. Esate baterako, uztailaren 22ko 2003/577/JAI Esparru Erabakia dugu, Europako Batasunean ondasunen badaezpadako bahituraren eta frogak segurtatzearen inguruko ebazpenak egikaritzeari buruzkoa; azaroaren 28ko 2002/946/JAI Esparru Erabakia, araz kontrako sarreran, zirkulazioan eta egonaldian laguntzea itozteko lege esparrua sendotzeari buruzkoa; ekainaren 13ko 2002/584/JAI Esparru Erabakia, Europako atxilotze aginduari eta estatu kideen arteko entrega prozedurei buruzkoa...

Azkenik, Kontseiluaren 2004ko apirilaren 29ko 2004/81/CE Zuzentarauak iraunaldi laburreko -sei hilabete- egoitza baimenari aterabidea ematea arautu zuen; baimen horren onuradunak hirugarren herrialdeetako biztanleak dira, gizakien trafikoaren biktima izandakoak edo legez kontrako immigrazioan lagundu dietenak, eskumena duten agintariei laguntzen badiete.

Europako Parlamentuaren barruan, prostituzioa legeztatzea alderdi polemikoa da, haren aldeko erabaki esplizitua eman ez badu ere, honako hau agerrarazi baitzuen 2000ko ekaineko Ebazpen baten bitartez, alegia, estatu kide gehienetan jazotzen den zuzeneko edo zeharkako debekuak delinkuentzia antolatuak kontrolatutako isilpeko merkaturak sortzen duela. Gainera, Ebazpenak nabarmendu zuen emakumezkoak ez duela askatasunez aukeratzen prostituta ofizioa, oro har; aitzitik, ekonomia, gizarte, politika eta kultur aukerekin harreman estua duen fenomeno da. Hartara, prostituten %5ek baino ez dute euren borondatez erabaki prostituitzea dirua erraztasunez lortzeko; gainerakoek, berriz, bizirik irauteko beste biderik aurkitu ez dutelako egiten dute.

Bestalde, epaiketa aurreko auzi bat aurkeztearen ondorioz, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak Epaia eman zuen 2001eko azaroaren 20an. Auzi horrek

Iraunaldi laburreko -sei hilabete- egoitza baimenari aterabidea ematea hirugarren herrialdeetako biztanleei, gizakien trafikoaren biktima izandakoei edo legez kontrako immigrazioan lagundu dietenei, eskumena duten agintariei laguntzen badiete

Txekiar Errepublikako herritar batek Herbeheretan finkatzeko duen eskubidea interpretatzeko eskatu zuen - "Jany" auzia-, eta Auzitegiak ondorioztatu zuen prostituzioan era independentean aritzea ordaindutako zerbitzuak ematea dela, eta "jarduera ekonomikoen" artean dagoela, zerbitzua ematen duenak mendekotasunezko inongo loturarik izan ezean ematen duela frogatzen bada betiere, jarduera aukeratzeari, eta lan eta ordainketa baldintzei dagokienez; gainera, erantzukizuna bere gain hartu duela egin behar du, osorik eta zuzenean ordaintzen zaion sari baten trukean.

Hartara, estatu kideek ordena publikoan oinarritutako murrizketak ezar badiezazkiekete ere euren lurraldean sartzeari edo egoteari, murrizketa horiek ezin aplika dakizkieke beste estatu kideetako herritarrei, bertako herritarrek berek berdin jokatzeko baimena badute. Hain zuzen ere, horixe gertatzen da Herbeheretan, prostituzioa legeztatuta baitago bertan; horrenbestez, ezin da beste estatu kideetako prostitutek bertan finkatzeko duten eskubidea murriztu, euren jarduera autonomia bada eta bertako herritarrei aplika dakizkiekeen araudi eskakizunen arabera egokitzen bada betiere.

2.4 ESPAINIAKO EGOERA

Euren gaitasunen jabe diren adinduak prostituzioan aritzea libre da gaur egun, eta tipifikatuta dago besteren sexu ustiapenetik onura ateratzen dutenen jardunbidea.

Emakumezko prostitutaren egoera juridikoa aztertuz gero, historian barrena aldatu egin dela hauteman dezakegu.

XX. mendearen erdialdera arte, higiene eta osasun legedia, eta polizia edo errolda legedia aplikatzen zitzaizkion prostituzioari Espainian, prostituzioan aritzea kontrolatzearen. Hartara, Administrazioak hiri bakoitzeko prostituzio etxeen kopuruari buruzko

Europako Parlamentuaren ustez, estatu kide gehienetan dagoen debekuak delinkuentzia antolatutako kontrolatutako isilpeko merkatua sorrarazten du

Estatu kideek ezin dute prostituzioan ari diren beste Estatu kideetako hiritarren sarrera edo egonaldia eragotzi beren hiritarrerako onartze badute.

Espainian askatasuna dago gauza diren adinduak prostituzioan aritzeko

informazio ofiziala zuen, eta prostituta orok aldizkako osasun azterketak egin behar zituen; haien emaitzak "osasun liburuxka" batean idazten ziren, eta "osasun liburuxka" hori erakutsi egin behar zen, bezeroek edo zegokion agintariak eskatzen bazuten.

Geroago, gure inguruko herrialdeekin bat, Espainiak sistema abolizionistaranzko lehenengo urratsa eman zuen, 1956ko martxoaren 3ko Lege Dekretua onartuz (martxoaren 10eko EAO). Tolerantzia etxeak behin betiko deuseztatu ziren haren arabera, eta 1. artikulua honako hau adierazi zuen hitzez hitz: *"Emakumezkoaren duintasuna zaintzearen, gizarte moralaren mesedetarako, legez kontrako trafikotzat jotzen da prostituzioa"*.

Espainiak Pertsonen Trafikoa eta Besteren Prostituzioaren Ustiapena Itotzeari buruzko 1950eko martxoaren 21eko Hitzarmenarekin bat egin zuen 1962ko ekainaren 18an, eta herrialde abolizionisten taldeko kide bihurtu zen ordutik aurrera.

1983ko abenduaren 18an, berriz, Espainiak emakumezkoaren aurkako bazterketa modu oro desagerrarazteko hitzarmena berretsi zuen. Hitzarmena Nazio Batuen Erakundearen Biltzarrak onartu zuen 1979ko abenduaren 18an, eta honako hau xedatu zuen 6. artikulua: *"Alderdiek neurri egokiak hartu behar dituzte, baita lege arlokoak ere, emakumezkoaren trafiko eta prostituzioaren ustiapen modu oro desagerrarazteko"*.

Espainiako Zigor Kodearen 1963ko bertsioak prostituzio delituaren subjektu aktibotzat jo zuen prostituzioan laguntzen zuena, prostituzioa babesten zuena, edo pertsonak biltzen zituena, iruzur, bortxa edo gehiegikeria bidez prostituzioan sartzeko. Halaber, prostituzioan aritzeko beharrezko azpiegitura (eraikinak eta lokalak) ematen zutenen jardunbidea zigortu zuen.

Azkenik, jardunbide horiek berak tipifikatu zituen, iruzurra izan beharrik ezean, delituaren subjektu pasiboa

adingabea bazen. Zigor araudi horren helburua ez zen prostituta zigortzea, proxeneta baizik, prostituitutako pertsona ados egon ala ez.

Zigor Kodearen 1995eko erreformaren ondoren, Espainiako Estatuak legea malgutu zuen. Azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoak onartutako Zigor Kodeak proxenetarentzako zigorra desagerrarazi zuen, eta adingabeen gaineko proxenetismoa --adostasuna izan ala ez izan- eta indarkeria, larderia edota bortxa bidezko adinduen gaineko proxenetismoa bakarrik zigortu zituen. Hala eta guztiz ere, Kodea ez zen arduratu azaleratzen ari zen beste arazo batetaz, alegia, nazioarteko sexu salerosketaz, eta apirilaren 30eko 11/1999 Lege Organikoak heldu zion auzi horri lehenengo aldiz; 11/1999 Legeak Zigor Kodeko II. Liburuko VIII. Tituluko artikulua batzuk aldatu zituen, hain zuzen ere, *"Sexu askatasun eta ukigabetasunaren aurkako delituak"* liburuko prostituzioari buruzko artikulua batzuk.

Hainbat adituren ustez, Espainiako Estatuaren Pertsonen Trafikoa eta Besteren Prostituzioaren Ustiapena Itotzeari buruzko 1950eko Hitzarmenetik eta Nazio Batuen Erakundearen jarrera abolizionistatik urrundu zen erreforma hori dela-eta, ustiatzaileak zigortu ahal izateko, emakumezkoek euren adostasuna ez zutela eman frogatu beharra ezarri baitzen, argi eta garbi egonik frogatzen zaila dela praktikan emakumezkoek adostasuna eman duten ala ez, delitu hauen biktimak dauden presio eta indarkeria egoerak kontuan hartuz gero.

Gainera, prostituzioa nabarmen aldatu da XX. mendearen azken herenean, gizakien trafiko sareak agertu direnetik; etorkin ugari harrapatzen dituzte horien bidez, eta pertsonen trafiko mafien aurka borrokatzeko lege instrumentuen nahikotasunik eza nabarmendu du horrek.

Gorabehera horrek eta Espainiak prostituzioaren inguruko jarrera zehatza ez izateak Espainia nazioarteko sareak aritzeko lurralde egoki bihurtzea bidera lezakete.

Espainia jarrera abolizionistatik aldentu zen 1995. urtean, emakumezkoek euren adostasuna ez zutela eman frogatu beharra ezarri baitzen

Lege tresnak ez dira nahikoak pertsonen trafikoa diharduten mafia antolatuen aurka borrokatzeko

Egoera hori erremediatzeko ekimen bat ekainaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren bidez XV bis Titulua sartzea izan zen, hain zuzen ere, "**Atzerriko herritarren eskubideen aurkako delituak**". Irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoak bertako 318bis artikulua aldatu zuen Senatuak 2001eko urriaren 9an onartutako mozioaren ondorioz, mozio horrek Zigor Kodea aldatzeko eskatu baitzion Gobernuari, 2001eko Justizia Itunarekin bat, proxenetismoaren tipifikazioari eta Estatuko segurtasun indarren baitan prostituitzera behartutako pertsonen trafiko sareen aurka borrokatzeko unitate espezifikoa sortzeari dagokienez.

Honako hau xedatu zuen artikulua horrek:

- "1. Norbaitzuek, zuzenean edo zeharka, pertsonak legearen aurka trafikagai hartzea edo pertsonen immigrazio klandestinoaren sustatu, faboratu edo errazten badu, Espainiatik edota Espainia iraganbide zein helmuga izanik, horri lau urtetik zortzi arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.*
- 2. Legez aurkako trafikoaren edo immigrazio klandestinoaren xedea pertsonen sexu-ustiapena bada, haiei bost urtetik hamar arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaie.*
- 3. Norbaitzuek aurreko bi paragrafoetatik edozeinetan deskribatutako jokabideak gauzatzen badituzte, irabaziak lortzeko asmoarekin, edo indarkeria, larderia nahiz engainua erabiliz, edo nagusitasun-egoeraz nahiz biktimaren ahulezia bereziaz abusatuz, edo biktima adingabea zein ezgaia izanik, edota pertsonen bizitza, osasuna edo osotasuna arriskuan jarriz, orduan, zigorrak euren goiko erdian ezarriko dira.*
- 4. Aurreko paragrafoan ezarritako zigor berberak eta, gainera, erabateko desgaikuntza, sei urtetik hamabi artekoa, ezarriko zaizkie, egitate horiek burutzeko,*

euren agintaritza-izaeraz edo agintaritza horren agente nahiz funtzionario publiko izateaz baliatzen direnei.

5. Artikulu honen 1. paragrafotik 4.eraoetan ezarri zigorrak baino gradu bat gehiagokoak zigorrak ezarriko dira, kasuan-kasuan, eta, gainera, lanbide, ogibide, industria edo merkataritzan aritzeko desgaikuntza berezia, baldin eta, erruduna antolakunde edo erakunde elkarte bateko kidea izanik, antolakunde edo elkarte hori, modu iragankorrean behintzat, halako jardueretan aritzen bada.

Antolakunde edo elkarte horietako buru, administratzaile edo arduradunen kasuan, horiei zigorra bere goiko erdian ezarriko zaie; zigor hori baino gradu bat gehiagokoa ere ezarri ahal izango da.

Paragrafo honek arautu kasuetan, agintaritza judizialak dekretatu ahal ditu, halaber, kode honen 129. artikuluan aipatutako neurrietatik bat edo batzuk.

6. Auzitegiek, egitatearen larritasuna eta horren inguruabarrak, errudunaren baldintzak eta errudun horrek lortu nahi duen helburua kontuan hartuta, kasuan-kasuan ezarritako zigorra baino gradu bat gutxiagokoa ezarri ahal izango dute".

Adingabeei eta ezgauzei dagokienez, Zigor Kodeak honako hauek tipifikatu zituen 187. eta 189. artikuluen bitartez: adingabea edo ezgauza prostituitzea bultzatu, sustatu, bideratu edo erraztea; adingabea edo ezgauza helburu edo ikuskizun exhibizionistetarako edo pornografikoetarako erabiltzea; adingabeen edo ezgauzen pornografiaren trafikoa; eta adingabeak edo ezgauzak prostituzioan jarraitzea ez ekiditea.

Helduen prostituzioari dagokionez, Zigor Kodeko 188. artikulua, irailaren 29ko 11/2003 Lege Organikoak aldatuak, honako jardunbide hauek sailkatu zituen, besteak beste:

Legez kontrako pertsonen trafikoa edo isilpeko immigrazioa zigortzen da, Espainiatik edota Espainia iraganbide zein helmuga izanik, legez kontrako trafikoaren edo isilpeko immigrazioaren helburua pertsonen sexu ustiapena bada

Zigortuta dago adingabea edo ezgauza prostituitzea bultzatu, sustatu, bideratu edo erraztea; adingabea edo ezgauza helburu edo ikuskizun exhibizionistetarako edo pornografikoetarako erabiltzea; adingabeen edo ezgauzen pornografiaren trafikoa; eta adingabeak edo ezgauzak prostituzioan jarraitzea ez ekiditea

"1. Indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edo nagusitasun egoeraz edo biktimaren beharraz edo zaurgarritasunaz abusatuz, norbaitek adingabea edo ezgaia den pertsona prostituziora induzitu edo hura sustatu, faboratu edo errazten badu, urtebetetik lau arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik 24 arteko isuna ere. Zigor bera ezarriko zaio irabazia beste pertsona baten prostituzioa ustiatzetik ateratzen duenari, pertsona hori ados egon arren".

Zigortuta dago
prostituzioan aritzera
behartzen duena
biktimaren adostasuna
izan ezean, eta horretatik
etekina ateratzen duena,
adostasuna izan arren

Zigor araudiaren esparrua urriaren 4an onartutako 6/2000 Lege Organikoak osatu zuen, Espainiak Nazioarteko Zigor Auzitegiaren Estatutua berrestea baimendu zuenak (urriaren 5eko EAO, 239. zk.). Tresna juridiko horrekin bat, Nazioarteko Zigor Auzitegiaren jardunbideek Estatutua sinatu zuten herrialdeetako zigor jurisdikzioa osatzen dute. Nazioarteko Zigor Auzitegia erakunde iraunkorra, independentea eta Nazio Batuen Erakundearen sistemarekin lotutakoa da, eta nazioarteko komunitate osoari eragiten dioten krimenik larrienetan esku hartzeko eskumena du. Besteak beste, lesa humanitateko krimenak direlakoak jazartzeko eskumena hartu zuen bere gain, hau da, "bortxaketa, sexu esklabotasuna, prostituzio behartua, haurdunaldi behartua, antzuaraztea eta larritasun baliokideko beste edozein sexu indarkeria mota".

Nazioarteko Zigor
Auzitegiak bortxaketa,
sexu esklabotasuna,
prostituzio behartua,
haurdunaldi behartua,
antzuaraztea eta
larritasun baliokideko
beste edozein sexu
indarkeria mota jazarriko
ditu

Gorte Nagusiek, berriz, emakumezkoen eta hauren trafikoaren inguruko arazoak aztertzeari ekin diote Emakumezkoaren Eskubideen Batzorde Mistoaren bitartez, sexuaren merkatu globala pertsonen trafikoan aritzeko hartzen ari den era berri eta kaltegarriak prebenitzeko, itotzeko eta zigortzeko ekintza zehatzak eta irtenbideak bultzatzearen. Batzordeak behin-betiko testu bat onartu zuen ateratako ondorioen gainean, baina lanari utzi behar izan zion, ganberak deuseztatu zirela-eta hauteskunde orokorretarako deialdiaren ondoren. Nolanahi ere, lanari laster berrekingo diola iragarri dute.

Ekimen horien bitartez, helburua da proxenetak eta proxeneten jarduerak etekina ematen dieten mafiak buru dituzten delituak ugaritzearen aurkako borrokaren eragingarritasuna bermatzea. Gainerakoan, araudi orotatik kanpo dago bezeroek sexu zerbitzuen hartzailetzat parte hartzea; ez dago jardunbide horren izatezko kriminalizaziorik.

Nolanahi ere, jarduera honen isilpeko egoera pribatuak prostitutaren aurkako beste indarkeria egintza batzuk egitea bideratzen du batzuetan. Edonola ere, sexu erasoen eta gehiegikerien inguruko Zigor Kodeko araudiarekin bat (178.-183. artikulua), bezeroaren jardunbidea tipifikazio horietakoren baten barnean egon liteke, sexu zerbitzuen bezerotzat izan ezean, ustezko erasoaren egiletzat.

Udalen eta probintzien esparruan, Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioak prostituzioari buruzko jardunaldiak egin zituen 2002ko ekainean, eta esku hartzeko oinarrizko hainbat printzipio ezarri zuen, hala nola, gizarte eztabaida zabalari heltzea prostituzioan jarduten diren pertsonen aktiboki parte hartu eta euren iritziak eta beharrak planteatu ditzaten, administrazio publikoek zeharka ekitea, eta sentsibilizazio, prebentzio eta heziketa kanpainak egitea.

Besteak beste, Bilbo hiriak eta Kataluniako Generalitat-ak prostituzioa dagoen lokalek bete beharreko baldintzak arautu dituzte, baina hainbat emakume elkartek gogor kritikatu dituzte araudi horiek, prostituzioa legeztatze ahalegintzat baitituzte. Halaber, Emakumearen Kataluniako Institutuak prostitutei gainerako langileek dituzten eskubide berak emateko beharrezko lege aldaketak egiteko asmoa iragarri du. Helburua da sexu langileek lanbide horretan aritzeko autonomia bermatuta izatea, eta neurri gogorrak izango dira onespenez horrekin batera, adingabeen ustiapena eta esklabotasun egoerak ekiditeko. Orobat, jarduera hau utzi nahi duten prostituentzako gizarteratze eta laneratze programak sustatuko dira.

Gorteen sexuaren merkatu globala pertsonen trafikoa aritzeko hartzen ari den era berri eta kaltegarriak prebentzeko, itozteko eta zigortzeko ekintza zehatzak eta irtenbideak bultzatzen dituzte

Justizia auzitegiak, berriz, auzi hau aztertzen hasi dira dagoeneko, klub jakin batzuetako prostitutak klub horien jabeekin lotzen dituen harreman motaren ikuspuntutik. Esate baterako, Auzitegi Nazionalak epai bat eman zuen 2003ko abenduaren 23an, eta Mesalina Enpresaburuen Elkarte Nazionalak (ASNEMek) Lan Zuzendaritza Nagusiaren erabakiaren kontra egin izanaren inguruan ebatzi zuen. Izan ere, Lan Zuzendaritza Nagusiak ASNEMen estatutuak ez onartzea erabaki zuen, euren lokaletan hirugarren pertsonak prostituzioan aritzea ageri zelako bertako jardueren artean, eta ASNEMen planteamendua ukatu zuen, jarduera hau ez dagoelako araututa Espainiako antolamendu juridikoan, toleratuta besterik ez baizik, eta ez dagoelako onartuta jarduera ekonomiko independentetzat. Epai horrek, ordea, xedatu zuen jarduera ekonomiko batean aritzea ezin dela jarduera hori araututa egotearen arabera baldintzatu, Konstituzioak enpresa askatasuna onartzen duenez gero; hau da, jarduera ekonomikoa ez dago botere publikoen eginbide arautzailearen mende. Gainera, gizarte errealitate honen inguruko araudirik eza gaitzetsi zuen epaiak inplizituki.

Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia aplikatuz, justizia auzitegi gorenaren hainbat epaik kontaktu klubetako zerbitzarien kasuan Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta ematea dakarren lan harremana dagoela ondorioztatu du, egitekoa bezeroak lokal publiko batean edariak kontsumitzera bultzatzea bada betiere; egiteko horrek ez dakar ezinbestean sexu zerbitzuak ematea, askatasunez hartutako erabaki autonomotzat jotzen denez gero. Hartara, lan baldintzak arindu zituen, alegia, mendekotasuna, ordutegia zorrotzasunez betetzea eta bertan izan beharra.

Kontaktu klubeko zerbitzari jardueran legez kontrako etorkinak aritu arren, lantzat hartzen da. Hartara, 2205/2002 eta 837/2003 epaien bitartez, Auzitegi Gorenak ebatzi zuen kontaktu klub batean zerbitzari lanetan aritzea Zigor Kodeko hainbat artikulutan

Prostituzioa jarduera ekonomiko independentetzat har daiteke, antolamendu juridikoak araututa egon ez arren

xedatutako langile kontzeptuaren barruan sartu behar dela, lana ordutegi baten mendekoa bada eta jarduera lokalen jabeek ezarritako baldintzen arabera egiten bada betiere. Hortaz, langile kontzeptu zabala hartu behar da kontuan zigor ondorioei dagokienez eta, Langileen Estatutuko 1.1. eta 2. artikuluetan xedatutako langileak ez ezik, Espainian lanpostu bat lortu nahi duten atzerritarrak ere sartu behar dira langileen artean. Izan ere, kontzeptua ez bada alde horretatik hartzen, arauak ez luke edukirik izango, hain zuzen ere, legez kontrako etorkinak lana lortu nahi duten pertsonak direlako, Espainian legezko langiletzat hartzeko beharrezko baimena ez dutenak oraindik.

Borondatezkoa izan arren, berea ez den herrialde batera aldatzen den eta bertan finkatzen den pertsona zaugarritasun edo arrisku egoeran dago legez kontrako immigrazioaren ondorioz. Hortaz, hura bultzatzen duten jardunbideak pertsona horien ondasun juridikorik garrantzitsuenak jartzen ari dira arriskuan, eta atzerritarrak izan litzakeen eskubideak kaltetzen, Espainian legez sartu izan balitz.

Kontaktu klubetako zerbitzariak "langileen" kontzeptu zabalaren barruan sartzen dituen jurisprudentziaren ikusmolde horrek zigorrik gabe geratuko liratekeen delituak jazartzea ahalbidetzen du, langilearen kontzeptu murriztagoa aplikatuko balitz. Izan ere, delitu hauek egotzitako akusatuek argudiatuko lukete kontaktu jarduera ez dela jarduera profesionala. Auzitegi Gorenaren ustez, ordea, ordutegiari lotuta izatea lan erregimeneko zerbitzuen arteko harremana ezaugarritzen duen mendekotasunaren faktore adierazgarria da, eta ordutegirik eza, berriz, emandako zerbitzuak lan arlokoak ez direlako adierazgarri da, lanera joateko betebeharrak juridikorik ezarekin batera.

Ildo horri berari jarraitu zion Konstituzio Auzitegiak, 163/2002 Epaia eman zuenean 2004ko urriaren 4an, interesduna zigortu baitzuen: interesduna ostatu baten

Kontaktu klubetako zerbitzarien kasuan Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta ematea dakarren lan harremana izatea, eta baldintzak arintzea, alegia, mendekotasuna, ordutegia zorrotzasunez betetzea eta bertan izan beharra, sexu zerbitzuak ematea egiteko horren barruan egon ezean, kontaktu klubeko zerbitzari jardueran legez kontrako etorkinak aritu arren

jabe zen, eta emakumezko atzerritarrek bakarrik hartzen zuten ostatu bertan. Emakumezkoek turistak bailiran sartu ziren Espainian, eta akusatuaren onurarako prostituzioan eta kontaktuan ziharduten etengabe, hark ezarritako arauekin bat. Langileen eskubideen aurkako delitutzat hartu ziren gertaera horiek; izan ere, Zigor Kodeko 312.2. artikulua "lan baimenik gabeko atzerritarrak enplegatzen dituztenak" zigortzen ditu, "lege xedapenen, hitzarmen kolektiboen edo norberaren kontratuen bitartez onetsitako eskubideak kaltetzen, desagerrarazten edo murrizten dituzten baldintzetan enplegatzen badituzte". Halaber, epai horrek uko egin zion honako tesi honi, alegia, emakumezko horien jarduera ez dela lan arloko eta Gizarte Segurantzaren legediaren barruan sartzen eta, hortaz, ez dutela legedi horrek langileei ematen dien babesari; izan ere, tesi hori onartu izan balu, enplegatzailerak legez kontrako etorkinak esklabotasun egoeran kontratatuzera bultzatuko zituzkeen, etorkinok ez ziratekeelako ezein arauen mende egongo.

Konstituzio Auzitegiak adierazi zuenez, legez kontrako kausa zuen lan harremana zen, idatzizko lan kontraturik izan ez arren. Azken batean, klub baten lokalean ematen zen zerbitzua, lokal horren jabeak ezarritako baldintzetan, azuratasunez eta mendekotasunez, eta aurrez ezarritako ordutegiaren eta lanaldien arabera.

Guztiak ala guztiak lan baimenik gabeko emakumezko atzerritarrak ziren, eta euren egoera baliatuz enplegatzen zituen auzipetuak, bere onurarako lan laidogarria egin zezaten berak ezarritako arauen eta baldintzen arabera. Hartara, enplegatzailerak gutxieneko lege eskubideen azpitiko lan egoera inposatzen zien emakumezkoek, eta ez zituen bere gain hartzen beretzat lan egiten zutenek eragindako kargak.

Epai horiek guztiek jarduera hau dagoen legez kanpoko egoera jartzen dute agerian eta, horrenbestez, kontaktuan eta prostituzioan diharduten pertsonen euren balizko lan eskubideak eskatzeko dituzten zailtasunak.

2.5 EUROPAKO BESTE HERRIALDE BATZUETAKO EGOERA

2.5.1 Herrialde araudizaleak: Herbehereak, Grezia, Alemania eta Txekiar Errepublikak

2.5.1.1 Herbehereak

2000ko urriaren 1ean jarduera honetan aritzen diren lokalen aurkako debeku orokorra kendu zen. Orduetik aurrera, debekatuta egoteari utzi dio adinduek euren borondatez lan egiten duten sexu lokalak kudeatzea, jabeak dagokion udal baimena lortzen badu betiere.

Legeztatze horri esker, adinduak euren borondatez prostituzioan jardutea lan mota formaltzat hartzen den lehenengo herrialdeetakoa bihurtu dira Herbehereak. Nolanahi ere, Herbeheretako Zigor Kodeak zigortzeko modukotzat jo zituen prostituzioa ustiatzeko modu guztiak, baita sexu ustiapen oro ere 2002ko urriaren 1etik aurrera.

Araudi berriaren helburua da prostituzioaren ustiapena kontrolatzea eta arautzea, prostituitzen diren pertsonen egoera babestea, prostituzio behartua ustiatzearen aurkako borroka hobetzea, adingabeak sexu gehiegikerietatik babestea, legez kontrakoan prostituzioaren hedadura murriztea, eta prostituzioa gainerako jarduera kriminaletatik bereiztea.

Nolanahi ere, oraindik ez da idatzi nazio mailako inolako legerik prostituzioaren inguruan, auzi honen gaineko politika planteatzea eta mantentzea udalen esku utzi denez gero, kontuan hartu ahal izan ditzaten tokian tokiko baldintza espezifikoak.

Hartara, udalek ezartzen dituzte prostituzio etxeak euren udal barrutian onartzeko baldintzak, eta litekeena da baimenak ematearen inguruko politika xedatzea horretarako. Herbeheretako Udalen Elkarteak (VNGK),

Prostituzioa legez kontrako kausa duen lan harremantzat hartzen da, idatzizko lan kontraturik izan ez arren, zerbitzua azturatasunez eta mendekotasunez, eta aurrez ezarritako ordutegien eta lanaldien arabera ematen delako

Adinduak euren
borondatez prostituzioan
jardutea lan mota
formaltzat hartzen den
lehenengo
herrialdeetakoa bihurtu
dira Herbehereak

berriz, sexu lokalei, sexu dendei, kaleko prostituzioari... buruzko nazio mailako antolamendu eredu osatu du.

Hainbat hirik "tolerantzia eremuak" ezarri dituzte: askatasunez jardun daiteke bertan kaleko prostituzioan, eta hortik kanpo, berriz, debekatuta dago. Hartara, prostituzioan jarduten diren enpresak lokalizatzen eragina izan daiteke kokalekuen politikaren bitartez.

Halako enpresa batek ezin du auzoko giroa eta ingurunea nahasi, eta bere lokalak bat etorri behar du hirigintza arauekin eta inguruneari buruzko ordenantzekin. Prostituzioan diharduen enpresa bat instalatzearen inguruko arauak instalazioei, segurtasunari eta higienezari buruzkoak dira; enpresa kudeaketaren gaineko arauak, berriz, prostituzioan diharduen pertsonaren egoerari buruzko aipamena egiten dute, haren segurtasun fisiko eta psikikoa babestearren, eta prostituitzen diren adingabeak edo indarrean dagoen egoitza baimenik gabeko pertsonak lanean izatea ekiditearren, eta auzokoek eragozpenak izatea saihestea dute helburu.

Prostituzioa lantzat onartu da ofizialki eta, hortaz, jarduera honetan aritzen diren pertsonak lanean ari diren gainerako herritarrek dituzten betebeharrak eta eskubide berak dituzte. Lokalaren jabearen eta prostitutaren arteko lan harremana aukeratzea, berriz, euren esku dago: jabe askok nahiago dute lan kontraturik gabe lan egitea, eta prostitutek, berriz, autonomoak bailiran aloka ditzakete instalazioak; hartara, lokalaren jabeak ez du gizarte aseguruaren kuotarik ordaindu edo atxikipenik egin behar. Edonola ere, Administrazioak badu kontrolatzea mendekotasun harremanik dagoen berez, iruzurrak ekiditearren, eta liburuxkak argitaratzen ditu autonomo edo soldatapean lan egitearen artean aukeratzea ahalbidetzen duen informazioaz; bi lan mota horiek dakartzaten eskubideei eta betebeharrei buruzko informazioa ematen du.

Langabeziaren Legearekin bat, prostituzioan soldatapean jardun den pertsona batek eskubidea du diru laguntza

jasotzeko, langabezian badago. Langabe guztiek bezala, langabezian dagoen prostituta batek lana bilatu behar du, lan merkatuan sartzeko prest egon behar du, eta beretzat egokia den lana onartu behar du. Jakina, ezin da inor behartu lan bat onar dezan prostituzioaren sektorean. Bestalde, prostituzioan jardun ondoren, pertsona batek ez badu horretan jarraitu nahi, ez du eskubiderik diru laguntza jasotzeko, bere borondatez dagoelako langabe, baina Enplegu Bulegoan izena ematea du lana eskatzeko.

Prostituzioa lantzat onartuta dago, baina ez da "lan egokitza" jotzen. Ondorioz, enplegu bulegoetan ez dago sektore honetarako lanpostu hutsik, eta ez da bitartekaritza lana egiten lana lortzeko sektore horretan.

Prostitutak eta enpresaburuak zergen subjektu pasiboak dira. Herbeheretako Ogasunak irizpide uniforme erabiltzen du herrialde osoan, eta zerga betebeharren erantzukizuna banatzen du horren bitartez, enpresaburuaren eta prostituzioan diharduen pertsonaren arteko lan harremanaren arabera.

Legeztatzeak dakartzan abantaila guztiak gorabehera, herrialdean dauden 30.000 prostitutatik gorako 921ek bakarrik eman zuten alta legea onartu eta bi urte geroago -2002-.

Nolanahi ere, lege hori ezin zaie aplikatu Europako Batasunetik ez datozen prostitutei. Hortaz, euren egoera legez kontrakoa da, eta asko eta asko inguruko beste herrialde batzuetara aldatzea eragin du horrek, edo legez kontra lan egin behar izatea; horrek ondorioak izan ditzake euren osasunean eta lan baldintzetan.

Egoera hori arintzearen, Herbeheretako Justizia Ministerioak "sexuaren industriako langile" atzerritarren lege kuotaren alde egin zuen, prostituzioaren Herbeheretako merkatuak hori eskatzen zuenez gero. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak epaia eman

Prostituzioan diharduen enpresa bat instalatzearen inguruko arauak instalazioei, segurtasunari eta higieneari buruzkoak dira

Jarduera honetan aritzen diren pertsonek lanean ari diren gainerako herritarrek dituzten betebeharrak eta eskubide berak dituzte

Prostituzioan soldatapean jardun den pertsona batek eskubidea du diru laguntza jasotzeko, langabezian badago

Prostituzioa lantzat onartuta dago, baina ez da "lan egokitzat" jotzen

zuen, eta prostituzioa jarduera ekonomikoa dela onartu zuen -"Jany".

auzia-. Epai horrekin bat, EBko eta Sobietar Batasuna osatzen zuten herrialdeetako emakumezkoek herrialde honetako sexuaren industrian sexu langiletzat jarduteko lan baimena lor dezakete, nork bere kabuz dihardutela frogatzen badute betiere. Hartara, Herbeheretako merkaturako sarbide kontrolatua eta legezkoa eman zitzaien, eta emakumezkoen trafikoa sexuaren industrian lan egiteko borondatezko immigrazio bihurtu zen; hala ere, prostituzioa normalizatzea prostituzioa txiroenentzako aukera delako irudipena indartu zuen horrek.

Gaur egun, ofizialki onartutako elkarteak daude herrialde honetan, sexuaren industriako enpresaburuek eta bezeroek osatutakoak. Gobernuak galdetu egiten die, eta haiekin lankidetzan aritzen da, euren interesak sustatzearren.

2.5.1.2 Grezia

Gaixotasun benereotatik babestearen inguruko 1981eko abuztuaren 20ko Legeak arautu zuen prostituten kontrola Grezian.

Prostituzioan aritu ahal izan dadin, emakumezkoak 21 urte baino gehiago izan behar ditu, ezkongabe, alargun edo bananduta egon behar du, eta Poliziaren aurrean aurkeztu behar du eskakizuna. Aztertu ondoren, Poliziak Gobernuaren Ordezkaritzaren aurrean aurkezten du eskakizuna, eta hark prostitutatzat hartzen du. Aurretiko baimena eskatzeaz gain, prostituta greziarrek mediku azterketak egin behar dituzte hamabost egunean behin; horien emaitzak baimenarekin batera ematen zaien osasun liburuxkan idazten dira. Halaber, bestelako osasun kontrolak ezar dakizkieke prostitutatzat onartu ez dituzten beste pertsona batzuei, hala nola, tabernetan, kabaretetan eta antzeko beste lokal batzuetan lan egiten duten emakumezkoek, edo leku publikoetan prostituta lana egiten dutela frogatu daitezkeen emakumezkoek. Zigor

esparruari dagokionez, hiru hilabeteko kartzela zigorra ezar dakieke emakumezkoei, ez badituzte jarduera hau arautzen duten betebeharrak eta debekuak errespetatzen. Isilpeko prostituzioa debekatuta eta zigortuta dago.

Klubak debekatuta daude; hortaz, prostitutek apartamentuetan egiten dute lan. Apartamentu horien antolamendua eta kokalekua, eta bizilagunekiko harremanak oso araututa daude, eta xedatuta dago nahitaezko tartea izan behar dela prostitutek lan egiten duten bi apartamenturen artean, bizilagunen bizitza babestearren. Batzorde batek du auzi hauen guztien inguruan erabakitzeko ardura, eta Poliziako ofizial batek, mediku batek eta gizarte laguntzaile batek osatzen dute. Batzordearen eginkizuna Poliziari prostituta bakoitzari buruzko informazioa ematea da, eta mugak eta debekuak ezartzea.

Inguru berean kokatzeko hamabi baimen eman daitezke bi urtean behin. Nolanahi ere, bizilagunen salaketarik badago, Batzordeak kopuru hori muga dezake, edo aurrez emandako baimenak berritu ez, inguruko eguneroko bizitza nahasten ari direla uste badu.

2.5.1.3 Alemania

Eskualdeetako gobernuek arautzen dute prostituzioa eta, ondorioz, agintari batzuk besteak baino liberalagoak dira.

Prostituzioa debekatzeko aukera dago 50.000 biztanletik beherako udalerrietan, eta Gobernuako agintariak prostituzioa debeka dezakete nahi adina kaletan eta plazatan, eta beste leku publiko batzuetan, baita ordutegiak ezarri ere prostituzioan aritzeko.

Sexu gaixotasunen aurka borrokatzeko 1953ko uztailaren 23ko Legearen arabera, gaixotasun benereoko kutsatzeko aukerak dituzten pertsonak mediku azterketak egin behar dituzte nahitaez. Hala eta guztiz ere, eskualdeek arautzen dute osasun kontrola; hortaz, ezberdintasunak daude

Herbeheretako Justizia Ministerioak "sexuaren industriako langile" atzerritarren lege kuotaren alde egin zuen

Emakumezkoak 21 urte baino gehiago izan behar ditu, ezkongabe, alargun edo bananduta egon behar du, eta Poliziaren aurrean aurkeztu behar du eskakizuna

Klubak debekatuta daude

Apartamentu horien antolamendua eta kokalekua oso araututa daude

eskualde baten eta bestearen artean. Esate baterako, Berlinen eta Hanburgon mediku azterketen nahitaezkotasuna desagerrarazi dute, baina beste eskualde batzuetan, berriz, arreta psiko-soziala ematearekin batera egiten dituzte. Nolanahi ere, prostituzioaren kontrola lehen baino askoz ere zabalagoa izan arren, debekatutako inguruen gaineko arau hausteak eta prostituzioaren gaineko ezein publizitate zigortu egiten dira.

Inguru berean kokatzeko hamabi baimen eman daitezke bi urtean behin

Prostituzioa legezko lantzat xedatu zuten 2002ko urtarrilean. Hartara, legedi horren barruan daude prostitutek Gizarte Segurantzari alta emateko eta auzitegietara jotzeko aukera, bezeroek ordaintzen ez badiete. Hala ere, bakar batzuk izan ezik, prostituta gutxik eman dute alta Gizarte Segurantzari, ez dutelako agintarien aurrean azaldu nahi; klubak jabeek ere ez dute gogo handirik lan kontratuak formalizatzeko, gizarte kotizazioen zati bat ordaindu beharko luketelako.

Eskualdeetako gobernuek arautzen dute prostituzioa Alemanian

Alemanian sexuaren industrian lan egiten duten emakumezkoen %85 atzerritarrak dira, eta herrialdean sartu diren moduari buruzko zalantzak jartzen ditu agerian horrek. Izan ere, oso zaila da baliabide ekonomikorik ez duten emakumezko horietako askok migrazio prozesuari aurre egitea, bidaiaren kostuei, dokumentuak izapidetzeari... Halaber, oso zaila gertatzen zaie negozioan beste norbaiten laguntzarik ezean sartzea eta, hartara, lotura estua dago legezkatzearen eta emakumezkoen trafikoaren artean.

Prostituzioa legezko lantzat xedatu zuten 2002ko urtarrilean

2.5.1.4 Txekiar Errepublika

10.000 bat pertsona prostituitzen dira herrialde honetan. Prostituzioa arautzeko lege proiektu bat onartu zuten bertan joan den abuztuan eta, araudi horrekin bat, prostituitu nahi duten zigor aurrekaririk gabeko 18 urtetik gorako txekiar osasuntsuek euren lanbidea erregistratu eta autonomo lan egin beharko lukete. Zergak, eta gizarte eta osasun segurantzari ordaindu beharko lituzkete, eta mediku azterketak egin beharko

lituzkete aldian-aldian. Proiektuaren helburua legezko prostituzioa legez kontrako prostituziotik bereiztea da, osasun arloko arriskuak murriztea, eta baita prostituzioarekin lotutako kriminalitatea murriztea ere.

2.5.2 Estatu abolizionistak: Belgika, Luxenburgo, Portugal, Frantzia eta Suedia

2.5.2.1 Belgika

Belgikak arazo honen eragina ikertzeko lehenengo Parlamentu Batzordea eratu zuen 1992. urtean, baita gizakien trafikoaren kontrako egitura neurriak hartzea planteatzeko ere. Ikerketa horren ondorioz zuzenena gizakien trafikoari buruzko Legea onartzea izan zen, hain zuzen ere, 1995eko apirilaren 13an.

Araudi berriak ez zuen prostituzioaren tratamenduaren ikuspegi abolizionista aldatu Belgikan. Prostituzioa ez da delitua berez, baina trafikoari aurre egiteko tresnak eman zizkion sistema judizialari. Hala ere, Legeak ekarri zuen berrikuntzarik garrantzitsuena arlo sozialean eta judizialean gizakien trafikoaren biktimen mesedetan hartzea ahalbidetu zuen neurri multzoa izan zen, dela organo judizialekiko harremanei dagokienez, dela larrialdietarako harrera eta ostatuari dagokienez, euren administrazio egoera konpontzen den bitartean.

Lotura estua dago legezkatzearen eta emakumezkoen trafikoaren artean

2.5.2.2 Luxenburgo

Luxenburgok abolizionismoa desagerrarazi zuen 1968ko apirilaren 1ean, eta 1949ko Hitzarmena berretsi zuen 1983ko urriaren 5eko Legearen bitartez.

2.5.2.3 Portugal

Zigor Kode berria onartu ondoren 1982. urtean, Portugal herrialde abolizionisten taldean sartu zen, Portugalgo legediak prostituzioan aritzea debekatzeko baitzuen ordura arte. Sexu ustiapenerako pertsonen trafikoari

dagokionez, auzi honen inguruan indarrean dauden nazioarteko itunak izenpetzeaz gain, Berdintasunerako Plan Globala onartu zuen 1997. urtean. Hura aplikatuz gero, Portugalgo Gobernuak emakumezkoen ustiapena eta trafikoa itotzeko ekintzak abiatzen ditu tokiko administrazioekin batera.

2.5.2.4 Frantzia

Prostituzioak ez du inolako definizio juridikorik, ezta lege estatusik ere Frantzian. Ez dago debekatuta, baina desagerrarazi nahi duen araudi zehatz bat dago, gizarte egokitasunik ezatzat jotzen baita arazoa.

Frantziak 1949ko Hitzarmena berretsi zuen 1960ko uztailaren 28ko legearen bitartez eta, harekin bat, prostituzioa ez da bateragarria giza duintasunarekin. Hein batean, erregimen araudizalea 1946ko apirilaren 13ko legea dela-eta desagertu zen Frantzian, hain zuzen ere, "Marthe Richard Legea" dela-eta. Lege horrek klubak debekatu zituen, prostituten erregistro ofiziala desagerrarazi zuen eta proxenetismoa itotzea areagotu zuen.

Halaber, polizia, osasun eta gizarte erregistroak desagerrarazi zituzten, baliagarritasun profilaktiko txikia zutelako, eta oztopoa izan zitezkeelako prostitutak gizarteratzeko.

Gizarte zerbitzu espezializatuak sortu dira -Prebentzio eta Birgizarteratze Zerbitzuak-, prostituitzeko arriskuan dauden pertsonak bilatu eta hartzeaz, eta horiei behar duten laguntza emateaz arduratzen direnak; berebat, prostituzioan diharduten pertsonen mesedetarako gerta daitekeen jardunbide mediko-sozial oro egiten dute. Bestalde, prostituzioa prebenitzeko, eta prostitutak berriro trebatu eta gizarteratzeko gizarte xedapenak hartu dira.

Azkenik, 1994ko Zigor Kodeak proxenetismoaren eta gizakien trafikorearen aurkako borroka areagotzeko neurriak xedatu zituen.

Ez da delitua berez, baina trafikoa aurre egiteko tresnak eman dizkio sistema judicialari

2.5.2.5 Suedia

Sexu zerbitzuak erostea debekatzen duen legea sartu zen indarrean 1999ko urtarrilaren 1ean. Hartara, isuna edo sei hilabeterainoko kartzela zigorra ezartzen da sexu harremanak izateko ordaintzeagatik.

2000ko ekainaren 26an Madrilén egin zen Prostituzioari buruzko Sinposioko adituek legedi aitzindari hau goraiatu zuten. Haren abantailak honako hauek omen dira: emakumezkoak ez kriminalizatzea, eta sexu zerbitzuak erostea debekatzea. Hamaika bezero zigortu zituzten legedia aplikatu zuten lehenengo urtean, eta beste 42 ikertzen ari dira oraindik. Kaleko prostituzioa %35 jaistera lortu zuen legeak urtebetean.

Lege honekin bat, sexua eskaintzen duen emakumezkoaren eta sexua erosten duen gizonezkoaren arteko kontratua ez da mailakideen arteko kontratua, sexua saltzen duten emakumezkoak egoera zaurgarriagoan daudelako sexua erosten duten gizonezkoak baino.

Prostituzioaren aurkako Suediako borrokak, ordea, prebentzio neurriak ere ditu bere baitan. Hartara, Poliziak bezeroei atzera eragiteko lanak egiten ditu, eta euren jardunbidearen zigor tipifikazioaren inguruan informatzen ditu. Poliziaren jardunbide horrek arrakasta handia izan du, bezeroek ez dutelako interesik euren jardunbidea gizartean hedatzen.

Lege honek zalaparta handia sortu du nazioartean, eta halako lehenengoa da mundu mailan. Hogei urte baino gehiago iraun duen prozesu luze eta bizi baten emaitza da, baita ikerketa kopuru handi baten, hainbat parlamentu batzorderen eta Suediako mugimendu feministaren etengabeko presioen ondorioa ere.

Halaber, berdintasunezko gizartea izateko ahaleginaren fruitua da, gizonezkoek eta emakumezkoek eskubide eta betebeharrak berberak izan ditzaten.

Prostituzioa ez da bateragarria giza duintasunarekin

Gizarte zerbitzu espezializatuak, prostituitzeko arriskuan dauden pertsonak bilatu eta hartzeaz, eta horiei behar duten laguntza emateaz arduratzen direnak; berebat, prostituzioan diharduten pertsonen mesedetarako gerta daitekeen jardunbide mediko-sozial oro egiten dute

Sexu zerbitzuak erostea debekatzen du lege batek

Sexu Krimenak Ikertzeko Batzordea sortu zen Suedian 1971. urtean; zazpi gizonezko eta emakumezko batek osatzen zuten, eta moralaren inguruko legedia ikertzea zen haren eginkizuna, zaharkituta zegoela uste baitzen. Sexualitatearen, bortxaketaren eta prostituzioaren, intzestuaren eta emakumezkoen aurkako tratu txarren inguruko ikuspegia aldatu zuen eztabaidari ekin zitzaion, eta prostituzioa emakumezkoen aurkako sexu zapalketaren zatitzat jotzen hasi zen: prostituzioaren helburua ez zen sexu gogobetetzea, gizonezkoek babesik gabeko emakumezko baten gaineko boterea eta nagusitasuna erostea baizik.

Sexua eskaintzen duen emakumezkoaren eta sexua erosten duen gizonezkoaren arteko kontratua ez da mailakideen arteko kontratua

Prostituzioaren Batzordea sortu zen 1981. urtean; batez ere, emakumezkoek osatu zuten orduan. Prostituzioaren inguruko mitoei eta hipokrisiei buruzko ikerketa sakon eta bikaina egin zuten, eta ia 700 orrialdeko txosten baten bitartez islatu zuten.

27 urte behar izan ziren legea errotik aldatu, eta sexu zerbitzuak erostea debekatzeko. Hartara, sexu askapenaren inguruko ikuspegia aldatu zen Suedian, eta gizonezkoak eta emakumezkoak kontuan hartzen zituen askapenaren inguruko ikuspegi bihurtu zen.

Inork ezin du beste pertsona baten sexualitatea erosi: ez emakumezkoena, ez gizonezkoena, ez haurrena. Izan ere, jarduera hori ez dagokio herrialde demokratiko bati.

Prostituzioa lantzat hartzen ez duen lege honen ondorioz, prostituta asko eta asko beste herrialde permisiboago batzuetara emigratzen hasi dira, eta gero eta lan gehiago egiten dute apartamentuetan eta klubetan; hortaz, kaleko prostituzioa hirietako barruti jakin batzuetara lerratu da.

Legeak dioenez, prostituzioa ez da fenomeno desiragarria, eta oztopoa da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuneranzko egungo bidean.

Aldi berean, Suediako botere publikoek sexu helburuetarako gizakien trafikoaren aurkako borroka aktiboari ekin diote.

2.5.3 Abolizionismoaren eta araudizaletasunaren arteko herrialdeak: Danimarka, Irlanda eta Erresuma Batua

Herrialde horietako legediaren oinarria 1949ko Hitzarmenaren espiritua bada ere, araudizaletasunetik gertu daude aplikazio praktikoari dagokionez.

2.5.3.1 Danimarka

Prostituzioa ez da delitutzat hartzen, baina ez dago legeztatuta.

Inork ezin du beste pertsona baten sexualitatea erosi

2.5.3.2 Irlanda

1993. urtean aztertu zuen berriro legedia, Giza Eskubideen Auzitegiak homosexualen hainbat jarduera debekatu zuelako zigortu zuela-eta.

2.5.3.3 Erresuma Batua

Prostituzioa ez da delitua, baina kontrolatu egin beharko litzateke. Historian zehar, prostituzioari aplika zekizkioken legeak alderrai ibiltzearen eta nahasmendu publikoen ingurukoak baino ez ziren. XIX. mendean, ordea, kaleetako eta tabernetako jardueri, eta prostituzioari buruzko hainbat lege onartu zen. 1864. urtean, berriz, gaixotasun kutsakorren aurkako lehenengo legeak onartu zituzten; haiekin bat, osasun kontrolak egiten zitzaizkien prostitutei.

Prostituzioa ez da fenomeno desiragarria, eta oztopoa da gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuneranzko egungo bidean

Lege horiek, ordea, Erresuma Batuko gizartea banatu zuten, eta legedi horren aurkako mugimendu abolizionista jaio zen. 1883. urtean, bertan behera utzi zituzten legeok, eta 1886. urtean, berriz, indargabetu egin zituzten.

1959. urtetik aurrera, hirugarrenak eragotz zitzaketen prostituzio modu guztiak ito ziren "Street Offences Act" delako legearen bitartez.

INGALATERRA:
Prostituzioa ez da delitua,
baina kontrolatu egin
beharko litzateke

Hainbat kontrol neurrik prostituzioan aritzea oztopatzen zuten, eta kaleko prostituzioa eta publizitatea zigortzen zen. Leku publikoetan lanean aritzeagatik bi aldiz ohartarazitako emakumezko oro salatzen zen, eta isuna ezartzen zitzaion; gainera, ez bazuen berehala ordaintzen, kartzelatu egiten zuten.

Prostituzioari buruzko ikerketa zabala egin ondoren, delitu berri bat sortu zuen araudia onartu zen 1980. urtean: proxenetismoa.

1985eko "Sexual Offences Act" Legearen helburua bezeroen eta prostituten arteko tratu aldea erremediatzea da, eta bezeroak zigortzen ditu, prostitutei gerturatu eta proposamenak egiteagatik.

2.5.4 Abolizionismoa ala araudizaletasuna?

Aurrez deskribatutako sistemekin zerikusia duen dilema dago planteatuta: prostituzioa deuseztatu egin behar den ustiapen modu bat da, ala arautu behar den lanbidea da? Bata bestearen kontrako bi iritzi daude polemika horri erantzuteko: prostituzioa errotik erauzi nahi dutenena, eta prostitutak sexuaren industriako langileak direla eta euren eskubideen alde egiten ari direla diotenena.

Bien arteko muga "prostituzio librearen" eta "prostituzio behartuaren" arteko ezberdintasuna da. Hartara, abolizionistek uste dute emakumezko hauetako gehienak prostituzioan aritzera behartuta daudela, eta sexuaren industriako langileek, berriz, argudiatzen dute ez duela zertan hala izan.

Emakumezkoaren bazterketaren aurka borrokatzen diren erakundeek eta organismoek diotenez, prostituzioa ez da

emakumezkoaren sexu askatasunaren adierazpide bat; aitzitik, indarkeriarekin, bazterketarekin, zailtasun ekonomikoekin eta kultura sexistarekin du zerikusia. Bere baitan besterentzea, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanen berdintasunik eza eta emakumezkoa sexu objektutzat hartzea duen gizarte gertaera da, eta horregatik ahalbidetzen du sexu ustiapena. Azken batean, emakumezkoen aurkako bazterketa formarik larrienetakoa da.

Emakumezkoak prostitutzera bultzatzen dituen hainbat egoera -pobrezia, bazterketa, aukerarik eza, eta baita aurretiko sexu gehiegikeria ere- dago prostituzio librearen eta prostituzio behartuaren arteko bereizketaren oinarrian, baina legeek ez dituzte aintzat hartzen hain egoera konplexuak. Prostituzioaren munduan sartzen diren emakumezko gehienak ez dira zentzuzko erabaki baten ondorioz sartzen; aitzitik, euren esku dagoen aukera bakarra baliatzen dute, beste aukerarik ez dutenez gero.

Tesi horiekin bat, arazoari aurre egiteko gakoa gizarteak gaitzitzeko gaitasuna berreskuratzea da, prostituzioa esklabotasun mota berria dela-eta. Prostituzioaren zati handi bat berariazko indarkeriaren eta gehiegikeria fisikoaren bitartez mantentzen da, baina aurretiko sexu gehiegikeriaren eta gehiegikeria emozionalaren ondorioa da hori sarritan, estualdi eta desabantaila ekonomikoena, bazterketarena, nortasuna galtzearena, manipulazioarena eta desilusioarena.

Nolanahi ere, jarduera hau legeztatzearen aldekoek uste dute prostituzioan aritzen diren pertsonak gizarte laguntzarako eskubidea, eta Gizarte Segurantzaren kotizatu eta lan kontratu batetik edo jarduera autonomo batean aritzetik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztiak izateko eskubidea dutela. Argudiatzen dutenez, mundu honen barruan badaude ez esklabo, ez biktima, ez behartuta sentitzen ez direla dioten pertsonak, eta hainbat faktoreren ondorioz erabaki dutenak

Abolizionistek uste dute emakumezko hauetako gehienak prostituzioan aritzera behartuta daudela, eta sexuaren industriako langileek, berriz, argudiatzen dute ez duela zertan hala izan

Arazoari aurre egiteko gakoa gizarteak gaitzitzeko gaitasuna berreskuratzea da, prostituzioa esklabotasun mota berria dela-eta

Legeztatzearen aldekoek uste dute prostituzioan aritzen diren pertsonen osasun arretarako, Gizarte Segurantzarako eta lan kontratu batetik edo jarduera autonomo batean ariztetik eratorritako eskubide eta betebeharrak guztiak izateko eskubidea dutela

prostituzioan lan egitea; hala balitz, askatasunez egindako aukera litzateke.

Iritzi horien arabera, milaka egoera desberdin existitzen da: pertsona batzuek euren kontura egiten dute lan, beste batzuek proxeneta dute eta beste batzuek, berriz, ez. Askok dirua ematen diote bikotekideari. Apartamentuak eta diru sarrerak partekatzen dituzten senitartekoak daude, baita batera lan egiten duten lagunak ere. Badira klubetarako kontratatutako pertsonak: haietatik kanpo bizitzarik izan ez, eta klubez klub -plaza klubak- eramaten dituztenak galdetu ere egin gabe. Hala ere, batzuek etsi egiten dute egoera horretan, diru gehiago aurrezten dutelako, eta seguruago sentitzen direlako.

Beharrezkoa omen da prostituitzen diren emakumezkoak berak antolatu eta entzutea, prostituziotik eratorritako arazoak eta gatazkak konpontzen parte har dezaten, eta eurenganako begirunea sustatzea, gizarte eragile aktiboak diren heinean.

Nolanahi ere, prostituzioan aritzen diren pertsonen eskubideak zaintzen al dira benetan? Lan horretatik eratorritako gizarte estigma eta bazterketa desagertuko al lirateke? Jarduera honetan aritzen diren emakumezkoen aurkako gehiegikeria eta ustiapena desagertuko al lirateke? Gizarteratzeko modu bat izango al litzateke? Askatasunez ezarritako harremanak al lirateke benetan?

Azken batean, prostituzioan jarduten diren pertsonen ekarriko al lieke onurarik prostituzioa legeztatzeak?

Galdera ugari egin behar diogu gure buruari prostituzioa legeztatzeak gertatzen ari den guztia erremediatu eta prostituitzen diren pertsonen bizi kalitatea hobetuko duen ala ez ondorioztatu aurretik.

Polemika hau dela-eta, mundu osoko emakume elkarteak bitan banatuta daude, eta prostituzioa legeztatu egin

behar delako iritzia bakarrik dute komunean. Abiapuntu hori hartuta, ordea, abolizionistek uste dute prostituitzen diren emakumezkoak biktimak direla, eta euren egoeraz baliatzen diren guztiak zigortu behar direla; araudizaleek, berriz, uste dute prostitutak lagun daitezkeela, arrisku profesionali aurre egiteko bidezko tratua eta babes bermatuz.

Sexuaren industriako lanen desabantailarik okerrena isilpeko egoera da. Ez dago lan babesik, ez kontraturik, ez etekinik, ez Gizarte Segurantzarik, ez horiek guztiak eskatzeko sindikaturik. Industria ez denez gero legezkoa, negozioaren jabeak edo buruak langileei edozein baldintza bidegabe ezartzeko aukera du, eta kalera bota ditzake protesta egiten badute.

Gizarteratzea da prostituzioan aritzen den pertsonak bizitza normalizatuan sartzeko duen bide bakarra eta, alde horretatik, lan normalizatu bat eskuratzea da pertsona horiek gizarteratzeko mekanismorik eragingarriena. Praktikan, ordea, zaila da hori, faktore ugari existitzen delako, hala nola, norberaren gaitasunak eta trebetasunak, gaitasun profesionala, andeatze pertsonal maila, adina...

Prostituzioan aritzeari utzi nahi dioten pertsonak aurre egin behar izaten dieten zailtasunak bi kategoriatakoak dira:

A. Inguruak ezarritakoak, besteak beste, mafiek eta proxenetek inposatzen dituzten askatasun pertsonalaren eta kolektiboaren gaineko bortxa, mehatxua eta kontrola, zor ekonomikoak, lan eta egoitza baimenik eza, gizarte estigmatizazioa, gizarte eta osasun arloko baliabideak, zerbitzuak eta laguntzak eskuratzeko zailtasunak...

B. Zailtasun pertsonalak, besteak beste, lan prestakuntzarik eza, hirugarrenak mantendu beharra, andeatze fisikoa eta buru andeatzea...

Beharrezkoa da prostituitzen diren emakumezkoak berak antolatu eta entzutea, prostituziotik eratorritako arazoak eta gatazkak konpontzen parte har dezaten

Gizarteratzea da prostituzioan aritzen den pertsonak bizitza normalizatuan sartzeko duen bide bakarra

Prozesua ezin da lerratu jarduera hau legeztatzeraz; aitzitik, benetako irteera profesionalak sustatu behar dira

Autore batzuek, hala nola, Juana María Santanak, honako hau argudiatzen dute, alegia, prostituzioa legeztatzearen alde egingo balitz, inola ere ez litzatekeela jarduera honetan aritzea sustatu behar, gaur egun bizibidea ateratzeko prostituzioan diharduten pertsonak duintzea ahalbidetuko duen behin-behineko aldizkat planteatu baizik, prostitutak funtsik gabeko indarkeriaren aurka babestea bermatuz, eta beste funtzio batzuetan txerta daitezen bideratuz, politika aktiboen, programen eta heziketa jarduera espezifikoen bitartez.

Horrenbestez, prozesua ezin da lerratu jarduera hau legeztatzeraz; aitzitik, benetako irteera profesionalak sustatu behar dira eta, nazioarteko itunak betetzearen, prostituziorako pertsonen trafikiko sareak eta horien zigorgabetasuna salatzen dituztenak babesteko mekanismoak bultzatu behar dira.

Prostituzioa ez da arazoa bera, hainbat bazterketa egoerari irtenbidea emateko gai ez den gizarte sistema baten ondorioa baizik; egoera horiek emakumezkoek erasaten diete batez ere. Iritzi ugari dago emakumezkoak prostituzioan mantentzeko moduaren inguruan, baina oso jende gutxi ari da emakumezkoak prostituziotik irteten laguntzearen inguruan; hortaz, sexuaren industria legeztatzen bada, sektore ekonomikoa den neurrian, gobernuek uko egingo diote emakumezko hauentzako lan egoki eta legezkoak bilatzeko erantzukizunari.

Prostituitzen den pertsonak independentzia ekonomikoa lortzeko bitartekotzat dabil prostituzioa

3. prostituzioaren gizarte alderdiak

Bezeroak bi pribilegio nagusi ditu: zigorgabetasuna eta izengabetasuna

3. PROSTITUZIOAREN GIZARTE ALDERDIAK

Prostituzioa "munduko ofiziorik zaharrena" jotzen da, eta gizarte sistema eta kultura guztietan existitzen da.

3.1 PARTE HARTZAILEAK

Hainbat parte hartzaile dago prostituzioaren munduan, eta rol bat du bakoitzak:

A. Prostituitzen den pertsona. Behar ekonomikoak eta bizi proiektuak ditu, eta prostituzioa independentzia ekonomikoa lortzeko bitartekotzat darabil.

Oro har, prostituta lanbide honetan beharrezkoa baino denbora gehiago ez jarduten ahalegintzen da.

Prostituzioa honako hauekin lotuta egon ohi da: tratu txarrekin, familia unitatea haustek eragindako afektibitate gabeziekin, analfabetismoarekin, drogaletasunarekin, migrazio fenomenoaren egungo egoerarekin, behar ekonomiko larriekin, nerabeen amatasunarekin, bizitzako hainbat momentotan gizartearen edo familiaren babesa ez izatearekin...

Gorabehera horietako batzuek emakumezko baten bizitzan bat egiteak sexu ustiapenaren munduan sar dadin bideratzen dute, ezbairik gabe. Azter dezagun faktore bakoitza banan-banan:

- **Familia egitura hautsiak:** litekeena da pertsona hauek familiarreko indarkeria sarritan pairatu izana haurrak ziren artean, eta baita sexu gehiegikeriak nozitu izana ere. Babesa eta onespina familiarretik kanpo bilatzera bultzatzen dituen kalte psikologikoa dute euren baitan gehienetan. Egoera horretan agertzen da proxeneta eta prostituzioaren munduan goiz hastea.

- **Bikotekiderik gabeko amatasuna, edo lagunak uztea:** ama familiartetik kanpo geratzea dakar, adingabea bada batez ere. Gurasoek arbuia ostean, pertsona baztertua bihurtzen da gizarte eta lan esparruan eta, ondorioz, prostituzioa haur jaioberriaren beharrei berehala erantzuteko bidea bihurtzen da.
- **Diru sarrera handiagoak lortzea:** kultur eta ekonomia behar larriak dituzten familiekin lotzen da, gizonetakoak edo emakumezkoak lana galtzarekin, eta lan merkatuan sartzeko zailtasunekin.
- **Drogazaletasuna:** droga kontsumoaren mendean egotea prostituzioan hasteko arrazoi bat da baina,aldi berean, jarduera honetan aritzearen ondorio izan liteke, bikotekideak edo proxenetak bultzatzearen ondorio, edo norberaren erabakiaren ondorio, drogak tentsio afektiboa eta fisikoa hobeto jasaten lagunduko duelakoan. Dirua berehala lortu behararen eta prostituzioak horretarako ematen dituen erraztasunen ondorioz, prostituzioa irtenbiderik bideragarrienetako bat da drogak kontsumitu ohi dituztenentzat.

Prostituzioaren munduan sartu ondoren, hartatik ateratzea da zailena emakumezko hauentzat, proxenetek eta klubak jabeek indarkeria, mehatxuak eta drogen eta alkoholaren mende egotea erabiltzen baitituzte gehienetan emakumezkoa kontrolatzeko. Prostituzioa uztea gaixotasun baten ondorioz indarrak agortu ondoren, edo proxenetari inongo etekin ekonomikorik ez emateagatik gertatzen da sarritan eta, oro har, akidura eta gogaitasun pertsonal aldia izaten da prostituzioan hiru eta bost urte artean aritzean. Izan ere, salbuespenak izan ezik, prostituzioan jarduten diren pertsona gehienek behin-behineko zerbait dela diote, baina lanbidea utzi eta berriro hasten dira asko eta asko.

Ez dago bezeroak identifikatuko dituen ezaugarri psikologiko edo fisiko zehatzik

- B. Proxenetak**, harremanetik etekin ekonomikoa ateratzen duen pertsona. Bere burua gizarte funtzioa betetzen duen enpresaburutzat du. Bezeroa gogobetetzea du helburu, eta eskubiderik gabeko enplegatutzat du prostituitzen den pertsona.
- C. Bezeroa**, afektibitate eta sexu beharrak dituen pertsona. Prostituzioa bere beharrei erantzuteko bitartekotzat erabiltzen du, prezio jakin bat ordaintzearen trukean.

Duela oso denbora gutxi arte, ikuspegi gehienek alde batera uzten zuten bezeroa, eta ikusezina zen isiltasun hori zela-eta. Izenik gabeko bezeroak begirunerako eta arriskuan ez izateko eskubidea zuela zirudien. Bi pribilegio nagusi zituen: zigorgabetasuna eta izengabetasuna. Nolanahi ere, arreta handia ematen ari zaio gaur egun bezeroak prostituzioan duen parte hartze aktiboari, eta harentzako zenbait programa dago herrialde batzuetan; programa horiek hainbat helburu dute: prostitutei tratu txarrak emategatik zigortutako gizonezkoak berriro heztea, ohiko bezeroei atzera eragin eta sexu zerbitzuak eska ditzaten ekiditea, osasun arloko arriskuei buruz informatzea arrisku horiek galaraz ditzaten...

Auzi honen inguruan egindako hainbat azterketak (besteak beste, Madrilgo Unibertsitate Complutenseko Gizarte Laneko Unibertsitate Eskolak egindakoak) ohiko bezeroek halako zerbitzuak erabiltzen dituztela onartzeko zailtasuna nabarmendu du, legediak jazarritako jarduera izan ez arren. Hori dela-eta, ezin dugu argi eta garbi jakin zergatik, zertarako, norekin, nola, noiz eta non jotzen duten halako zerbitzuetara. Egindako ikerketa eskasen emaitzak ikusirik, honako hau ondorioztatu da, alegia,

Harreman gehienak ia inoiz ez dira hirian edo herrialdean bertan gertatzen

Motibazioei dagokienez, sexu arloko esperientzia eskasa eta birjintasuna dira lehenengo arrazoiak. Gizonezko askoren ustez, morboa, sedukzioa, arriskua da beste arrazoi bat; izan ere, lurralde debekatuan sartzeko irudipenak nabarmen limurtzen du gizonezkoa.

Beste motibazio mota bat euren fantasiak eta bikotekidearekin egiten ez dituzten beste sexu praktika batzuk gauzatzea da.

Azkenik, sexu bikotekidea aurkitzeko zailtasunak eta emakumezkoekin harreman sozialak izateko arazoak nabarmendu behar dira. Sarritan, halako bezeroek ez dute sexua helburu nagusi, litekeena baita hitz egin besterik ez egitea.

Bezeroak prostituzioaren inguruan duen sentipena dela-eta, prostituzioa zerbait naturala eta gorde behar ez dena bailitzan sentitzen dute askok.

Nolanahi ere, prostituzioa euren isilpeko bizitzaren zati bat bailitzan sentitzen dute gehienek. Zenbait gizonezko errudun sentitzen da sexua erosten badu, sexua erostea ez dagokiolako buruan duen sexu nortasun positibo eta sendoari. Norberaren eta besteen aurrean prostitutengana jotzera behartuta sentitzen dela, edo prostitutengana jo "behar" duela onartzea norbera behar adina ona ez dela, edo sexu harreman "normalizatuak" izateko gai ez dela onartzea bezalakoa da.

Adinei, eta kultur eta ekonomia mailei dagokienez, ezinezkoa da inongo sailkapenik egitea. Era berean, maila, gustu eta prezio mota guztientzako prostituzio motak daude. Alde horretatik, eskaintza eskariaren arabera egokitzen da: kaleko edo errepideko prostituzioa, kontaktu klubak, luxuzko prostituzioa, masaje aretoak, saunak...

Eskariaren aldetik, elementurik interesgarrietako bat da harreman gehienak ia inoiz ez direla hirian edo herrialdean bertan gertatzen. Suedian egindako azterketa baten emaitzen arabera, honako hauetan jazotzen dira:

- Hirian bertan: 9%
- Beste hiri batean: 13%

Sexuaren industria izan da sarea negoziotarako erabiltzen lehenengoetakoa

- Oporrak direla-eta, atzerrian: 38%
- Lana dela-eta, atzerrian: 31%
- Atzerrian bizitzen: 9%

Alde horretatik, ez dago soberan sexu turismoa sexu ustiapenerako eta prostituziorako pertsonen trafikoarekin lotzearen garrantzia gogoraraztea.

Bitxia bada ere, %10ek baino ez du aipamen esplizitua egiten sexu beharraren inguruan prostituziora jotzeko arrazoitzat, eta emozio arrazoiak argudiatzen dituzte gehienek. Horrek ez du esan nahi sexu desira sentitzen ez dutenik; aitzitik, ez dira euren sexualitateaz mintzatzen honen ganean galdetzen zaienean, eta jakin-mina, zirrara eta kitzikadura aipatzen dituzte, besteak beste. Kitzikadura horren zati bat prostitutak emakumezkoaren inguruan duten irudiaren alderdirik ilunena irudikatzearen emaitza da. Halaber, eragina du honako ideia honek, alegia, sexu arloan esperientzia handiagoa duen edo oldarkorragoa den emakumezko batekin daudelako irudipenak.

3.2 PROSTITUZIOAN ARITZEKO MODUAK

Prostituzioan aritzeko moduei dagokienez, azterketa sozial eta juridikorik gehienak honako prostituzio mota hauetaz mintzo dira: kaleko edo bazterreko prostituzioaz, lokaletako, saunetako, hoteletako eta kontaktu klubetako prostituzioaz, eta maila handiko prostituzioaz.

A. Kaleko prostituzioa: hiriko inguru mugarriztatuetan gertatzen da, hala nola, parke eta plaza publikoetan, alde zaharretan, prostituzio auzoetan edo kaien inguruan... eta sexu harremana, berriz, inguruetako pentsio xumeetan, parkeetan edo bezeroen ibilgailuetan jazotzen da.

- B. Lokaletako eta kontaktu klubetako prostituzioa:** sistema abolizionistak eta debekuzaleak dituzten herrialdeetan azaldu zen prostituzio mota hau, eta nolabaiteko antza du aspaldiko prostituzio etxeekin. Lokal horiek bezeroei eskaintzen dizkieten instalazioak eta zerbitzuak dituzte, baina emakumezkoen prostituzioan datza negozioaren oinarria. Diru sarrerak handiak izaten dira oro har, eta lokalaren jabearekin partekatzen dira.
- C. Etxebizitza pribatuetako prostituzioa:** etxebizitza prostituta ohi baten ohiko bizilekua da eta, kasuan-kasuan, etxebizitza propiorik ez duten hainbat emakumezko etorkinena. Bataren eta besteen artean banatzen dituzte etekinak: jabeak etekinen %40 eskuratzen du, eta prostitutek, berriz, %60. Kopuru horiek etxebizitza mantentzeko gastuak ordaintzeko erabiltzen dira, baita jabeak bezeroekiko harremanak kudeatzeko ere. Nahiko ohikoa da prostitutak antzeko ezaugarriak dituzten beste etxebizitza batzuetara aldatzea, bezeroei eskaintzen zaizkien zerbitzuak berritzearen baina, oro har, praktika hori lokal publikoen, tabernen eta kontaktu klubaren artean aplikatzen da gehiago.
- D. Prostituzio mota berriak:** luxuzko hoteletako eta masaje aretoetako prostituzioa, laguntza zerbitzuak, sexu turismoa, Internet bidezko prostituzioa... Komunikabideetan argitaratutako iragarkien bidez sortzen da harremana, eta relax zerbitzuetarako neskak eskatzen dituzte horien bitartez.

Internet bidezko zerbitzuei dagokienez, sexuaren industria izan da sarea negoziotarako erabiltzen lehenengoetakoa, eta diru sarreren %60 ere lortu du horri esker.

Sexuaren industria izan da INTERNET sarea negozioetarako erabili duen lehenetarikoa

4. prostituzioa eta immigrazioa

Prostituzioak etorkin
aurpegia du gaur egun

4. PROSTITUZIOA ETA IMMIGRAZIOA

Gizarte arazo horiei guztiei honako hau erantsi behar zaie, alegia, prostituzioak (nola gizonezkoenak, hala emakumezkoenak) etorkin aurpegia duela gaur egun. Legezko lan eta egoitza baimenak lortzeko zailtasunek etorkinak araututako lan sektoreetan sartzea eragozten dute eta, horrenbestez, etorkin asko eta asko inongo kontrol juridikorik ez duten bazterreko sektoreetako jarduera hauetan aritzera behartuta daude.

Prostituta atzerritar
gehiago daude Europako
Batasuneko herrialde
askotan prostituzioan
aritzen diren bertako
emakumezkoak baino

Prostituzioaren munduan atzerritarrek izateak merkatuaren alderdi guztiak aldatu ditu. Afrikako, Asiako, Latinoamerikako eta, berrikiago, Ekialdeko Europako emakumezko kopuru gero eta handiagoa dago nazioarteko fenomeno honen barruan.

Hartara, prostituta atzerritar gehiago daude Europako Batasuneko herrialde askotan prostituzioan aritzen diren bertako emakumezkoak baino eta, NBEk eta MNEk (Migrazioen Nazioarteko Elkarteak) kalkulatu dutenez, milioi erdi emakumezko sartzen dituzte urtero Mendebaldeko Europan.

"Prostituta ibiltaritzat" jo daitezke prostituta horiek, beste herrialde batean lan egiten dutenez gero, dela aukeratu dutelako, dela gorabehera ekonomikoek edo beharrak horretara bultzatu dituelako.

Prostituzio ibiltarian jarduten diren pertsonak lege, gizarte eta osasun egituretatik kanpo daude sarritan eta, horregatik, zailtasun ugari izaten dute bizi eta lan kalitatea hobetzeari buruzko informazioa eskuratzeko. Halaber, pertsona horiek egintza kriminaletan eta emakumezkoen legez kontrako trafikoan nahasteko aukera gehiago dituzte bazterreko egoera hori dela-eta, edo bakardade eta mendekotasun sentimenduak izatekoa.

"Harrera lekuak" deitzen dira prostituzioan jarduten diren emakumezkoen eskaera legeztatuta eta onartuta dauden hiriak eta herrialdeak; "jatorrizko eskualdeak", berriz, trafikatzailerik emakumezkoak biltzen dituzten inguruak eta herrialdeak dira, prostituzioaren munduan sartzearen.

Jatorrizko herrialdeen edo eskualdeen ezaugarriak honako hauek dira: pobrezia, langabezia, gerra eta egonkortasunik eza politiko eta ekonomikoa. Egoera hori dela-eta, trafikatzailerik erraztasun gehiago dituzte, biktimak biltzea errazagoa den eskualdeak aukeratzen baitituzte jomugatzat.

Kontsumismoaren hazkundeak eta zailtasun ekonomikoek trafikatzailerik maileguak onartzera behartu dituzte herrialde horietako askotako familiak, ondasun materialak erosteko euren alabak erabiltzearen trukean.

Beste herrialde batzuetan, berriz, alabek diru kopuru jakin bat ordaindu behar diete familiei kultur arloko betebeharrak baten ondorioz, hezi egin dituztelako, eta alaba bat sexuaren industriaren barruan izatea oso laguntza ekonomiko handia da inguru pobreetako familientzat. Hartara, emakumezkoen kontura aberasten diren mafiek emakumezko asko eta asko biltzen dituzte euren jatorrizko herrialdeetan, eta diru kopuru handiak eskatzen dizkiete Europako prostituzioaren merkatuan sartzearren trukean.

Antolakundeak Europan lan egin ahal izango dutela ziurtatzen die, eta bidaiaren gastu guztiak hartzen ditu bere gain, baita egonaldiaren lehenengo egunetarako diru kopuru txiki bat eman ere emakumezkoek. Emakumezkoak helmugara iritsi ostean, ordea, diru hori kentzen diete, pasaportea atxikitzen diete, eta prostituzioan arituz ordainduko dituzten diru kopuru handiak eskatzen dizkiete.

Nahiz eta egia izan gehienak euren borondatez etortzen direla sexuaren industrian lan egitera, haatik, ez dakite

Jatorrizko herrialdeen edo eskualdeen ezaugarriak honako hauek dira: pobrezia, langabezia, gerra eta egonkortasunik eza politiko eta ekonomikoa

Gehienak euren borondatez etortzen dira sexuaren industrian lan egitera

Biktimak legez kontrako egoeran aurki ditzaten beldur dira gehienetan, eta gehiegikeria handiak jasan behar dituzte isilpean

prostituzioan aritu beharko duten benetako egoeraren berri. Hartara, ordutegi luzeegiei, bezero jakin batzuk arbuiaitzeko ezintasunari, isun arbitrarioei, oporrik edo asteen zehar atsedean egunik ez izateari, antolakundeari zor dioten kopuru osoa itzultzen ez duten bitartean prostituzioan jarduteko lokala ezin aukeratuari... egin behar diete aurre maiz. Hori dela-eta, itxuraz erabaki heldutzat har daitekeena pertsona diren neurrian duten duintasunaren aurkako eraso bihurtzen da, erabakitze eta mugitzeko gaitasuna erabiltzea galarazten diete-eta.

Pertsonen trafikoan aritzen diren sareek nahiko egitura konplexua dute, baita azpiegitura handia ere -lokalak, apartamentuak eta klubak- Espainia osoan barrena; azpiegitura horrek legez kontrako beste jarduera asko hartzen ditu barruan, hala nola, estupefazianteen trafikoa.

Biktimak legez kontrako egoeran aurki ditzaten beldur dira gehienetan, ez dutelako herrialdean egoteko beharrezko administrazio dokumentazioa, eta isilpean jasan behar dituzte euren sexualitatea ustiatzetik etekina ateratzen duten antolakundeen gehiegikeria handiak. Hartara, ustiapen sareek aurrera egiten dute eta euren boterea hedatzen da, baina gobernuak ez dira gai biktimari babesa eta aholkularitza emateko. Horregatik du hain garrantzi handia delitu hauen biktimen babesa bermatzea ahalbidetuko duten neurriak aplikatzea.

Emakumezkoen trafikoa prebenitzeko nazioarteko lehenengo konferentzia 1895. urtean egin zuten Parisen. 1904. urtean, berriz, Nazioen Elkarteak emakumezkoen trafikoa izeneko Trafiko Kriminalaren aurkako Babes Eragingarria Bermatzeko Ituna sinatu zuen.

Emakumezkoen Trafikoa Itutzeko Nazioarteko Bigarren Ituna sinatu zuten 1910eko maiatzaren 4an, trafiko horretan jarduten direnentzako zigorrak xedatu zituena. Itun bakoitzaren bitartez, parte hartu zuten estatuek euren barne legedian honako delitu hau sartzeko neurriak hartzeko konpromisoa hartu zuten, alegia,

"emakumezko adingabeak kontratatzea, garraiatzea edo bahitzea, beste pertsona batzuen nahiak asetzearren (...). Xedapen berberak aplikatuko zaizkie iruzur bidez emakumezko adindunak kontratatzen dituztenei".

Nazioen Elkarteak Emakumezkoen eta Haurren Trafikoa Itotzeko Ituna sinatu zuen 1921eko irailean, eta xedapen berriak erantsi zizkien aurreko itunei, hala nola, bulegoek beste herrialde batzuetan lana bilatzen duten emakumezkoak eta haurrak babesteko baimenei aterabidea emateko neurri juridikoak eta administratiboak hartzea.

Emakumezko Adinduen Trafikoa Itotzeko Nazioarteko Ituna sinatu zuten 1933. urtean, aurrekoen osagarri. Emakumezko langile migratzaileak babesteko, Esklabotasunari buruzko Hitzarmena ere aplika daiteke; honela definitu zuen Hitzarmenak esklabotasuna: *"Jabetzarako eskubidearen atributu guztiak edo batzuk erabiltzen diren norbanakoaren egoera"*. Honako definizio hau eman zion, berriz, esklaboen trafikoari: *"Pertsona bat esklabotasunaren mendean jartzeko harrapatzea, erostea edo lagatzea"*.

Azkenik, Nazio Batuen Erakundeak Pertsonen Trafikoaren eta Besteren Prostituzioaren Ustiapenaren aurkako Nazioarteko Hitzarmena sinatu zuen 1949ko abenduaren 2an, hain zuzen ere, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala izenpetu eta urtebete geroago; Hitzarmena 1951. urtean sartu zen indarrean.

Nazio Batuen Erakundeak Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Hitzarmena idatzi zuen 2000ko azaroaren 15ean, baita Hitzarmena osatu zuen protokolo bat ere.

Protokoloak delinkuentzia antolatuko mundu mailako sareen aurka borrokatzeko konpromisoa hartu zuen, baita gizakien trafikoari eta prostituzio transnazionalari aurre egitekoa ere.

Barruan honako hauek hartu behar dituen ikuspegi konbinatuaren beharra, alegia, giza eskubideen babes eta biktimak prebentzio, jazarpen eta lankidetzaren judizial mekanismo eragingarrien bitartez laguntzea

Batez ere, prostituzioaren ustiapenerako eta beste sexu ustiapen mota batzuetarako, zerbitzu behartuetarako, esklabotasunerako edo esklabotasunaren antzeko praktiketarako, morrontzarako eta organoen erauzketarako gizakien salerosketaz dihardu Protokoloak. Halaber, giza eskubideen interpretazio egokia egin zuen, trafikoaren biktimei babes egokia eman zuen, eta barruan honako hauek hartu behar zituen ikuspegi konbinatuaren beharra onartu zuen, alegia, giza eskubideen babes eta biktimak prebentzio, jazarpen eta lankidetzaren judizial mekanismo eragingarrien bitartez laguntzea.

Hitzarmena eta protokoloak sinatzeko Goi Mailako Konferentzia Politikoa Palermon egin zuten 2000ko abenduan. Janice Raymondek Madrilgo Autonomia Komunitateak argitaratutako Protokoloaren gidaliburuan azaldu zuenez, honako hauek dira pertsonen trafikoari buruzko protokolo alderdirik garrantzitsuenak:

- Batez ere prostituzioan dauden emakumezkoen dagokienez, trafikaturako pertsonak inoiz gehiago ez dira hartuko gaizkiletzat, delitu baten biktimatzat baizik.
- Erantzun globala eman behar zaio trafiko globalari. Krimen antolatua botere handiko indarren multzoa den arren, Protokoloak Poliziaren, immigrazio agintarien, gizarte zerbitzuen eta gobernu kanpoko erakundeen arteko lankidetzaren akuilatu nahi du.
- Nazioartean onartutako definizioa eta jazarpen, babes eta prebentzio mekanismoak ditugu orain, eta trafikoaren aurkako legedi nazionalak horietan oinarritu behar dute; era berean, herrialde guztietako legeak harmonizatzeko baliagarri izan litezke.
- Behartu egin dituztela frogaren dezaketenak ez ezik, Protokoloak trafikoaren biktima guztiak babestu nahi ditu.

- Ez du garrantzirik biktimak ados dauden ala ez.
- Trafikoak erabilitako delitu mota kopuru handia sartzen da definizioaren barruan; indarra, bortxa, bahiketa, iruzurra eta botereaz baliatzea ez ezik, hain esplizituak ez diren bitartekoak ere sartzen dira, hala nola, biktimaren zaugarritasun egoeraz baliatzea.
- Trafikoaren nazioarteko definizio berriak biktimen egoera sendotu nahi du, delitua frogatzea ez dagokielako beraiei.
- Ezin dira prostituzioaren ustiapenaren, eta pertsonen trafikoaren tratamendua bereizi. Protokoloak onartu egiten du trafikoak prostituzioa eta beste sexu ustiapen mota batzuk dituela helburu hein handi batean.
- Ez da beharrezkoa biktimek euren herrialdeetako mugak zeharka ditzaten. Hortaz, euren herrialdean bertan prostituziorako trafikatzan dituzten emakumezkoak ere daude Hitzarmeneko 3. artikuluan xedatutako babesaren barruan.
- Trafiko prozesu orotako giltzarria ustiapena da, muga zeharkatzea baino askoz ere gehiago.

Emakumezkoen eskariak
sustatzen du ustiapen
mota oro

Protokolo hau izan zen Nazio Batuen Erakundearen lehenengo tresna honako alderdi hau kontuan hartzen, alegia, emakumezkoen eskariak sustatzen duela ustiapen mota oro, eta dei egin zien herrialdeei eskari horren aurkako neurri zorrotzagoak har zitzaten.

Espanian, berriz, indarrean dagoen urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoko 59.1. artikulua, hau da, Espainian dauden Atzerriarren Eskubideei eta Askatasunei, eta euren Gizarteratzeari buruzko Lege Organikoko 59.1. artikulua, sare antolatuen aurka borrokatzen laguntzen duten pertsonen eskubide jakin batzuk ematea xedatu zuen.

Honako hau da delako aginduaren hitzez hitzezko edukia, azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak aldatu zuena:

"Administrazio erantzukizunetik salbuetsiko da eta ez da kanporatuko Espainiako muga horretarako ezarritako igarobideetatik kanpo zeharkatu duen atzerritarra, edo sarrera deklaratu beharra bete ez eta Espainian irregularki dagoena, edo baimenik edo dokumentaziorik gabe, edo dokumentazio irregularraz lanean ari dena, gizakien legez kontrako trafiko, legez kontrako immigrazio edo langileen trafiko, edo prostituzioaren ustiapen egintza baten biktima, kaltetu edo lekuko izan delako, bere behar egoeraz baliatu direlarik, trafiko horren egileak edo laguntzaileak salatzen baditu eskumena duten agintarien aurrean, edo atzerritarren esparruan eskumena duten Poliziako funtzionarioei laguntzen badie funtsezko datuak emanaz eta, beharrezkoa balitz, lekuko izanik egile horien aurkako prozesuan".

Sare antolatuen aurka borrokatzen laguntzea erabakitzen duten biktimak babesteko erregimena lan eta gizarte arloko eskubideek osatzen dute. 59. artikuluko hirugarren atalak xedatu zuenez, *"euren jatorrizko herrialdera itzultzearen, eta Espainian geratzearen eta egotearen artean hautatzeko aukera eskainiko zaie administrazio erantzukizunetik salbuetsitako atzerritarrei, baita lan baimena eta gizarteratzeko erraztasunak ere".*

Gaur egun immigrazioaren alorrean indarrean dauden legeen filosofiak ere eragin handia du prostituzioan jarduten diren pertsonen eta etorkinen bizi eta lan baldintzetan. Euren estatus zibil irregularrak klubak jabeen eta bezeroen gehiegikeriak jasan behar izan ditzaten bideratzen du baina, ez dutenez gero Poliziarengana jotzeko edo euren eskubideak babesteko aukerarik, besterengan bilatu behar dute babesa, eta mendekotasun egoerak ekar ditzake horrek. Hartara, proxeneten, klubak eta tabernen jabeen, hitzarmenezko senarren eta sexuaren industrian nahasitako beste pertsona batzuen mende daude.

Trafikoa prebenitzeko, migratzaile bihurtzeko euren eskubideen eta lan kontratuen oinarrien inguruan informatu behar dira

Eskumena duten agintariek emakumezkoen nazioarteko trafikoa prebenitzeko ekintzak egin behar dituzte, biktimak epe luzerako programen bitartez babesteko eta trafikatzailleak jazartzeko, krimenaren larritasunaren araberako zigorrak ezarriz eta euren negozioak eta ondasunak bahituz.

Trafikoa prebenitzeko, migratzaile bihur litezkeenak euren eskubideen eta lan kontratuen oinarrien inguruan informatu behar dira, eta Mendebaldeko Europara migratzeko asmoa dutenei aholkularitza eta informazio fidagarria emateko telefono bidezko laguntza abian jarri; krisialdi zentroak identifikatu behar dira, baita gobernuen eta gizartearen baliabideak ere; jomuga bihur litezkeen taldeak identifikatu behar dira, mezuak helaraz dakizkien galarazteko; trafikoari buruzko informazio publikoko kanpainak egin behar dira; au-pair, enplegu... agentzia faltsuei buruzko informazioa bildu behar da; eta, azkenik, alor honetan diharduten erakundeak eratzea sustatu behar da, baita tokian tokiko emakume elkarteak eta sexu trafikoaren biktimentzako errehabilitazio, laguntza psiko-sozial eta birgizarteratze programak ere.

Halaber, egokia litzateke biztanleria eta bezeroak sentsibilizatzeko kanpainak egitea.

5. prostituzioaren lan eta ekonomia alderdiak

5. PROSTITUZIOAREN LAN ETA EKONOMIA ALDERDIAK

Lege hutsunea dago lan esparruan, eta sektore honetako langileak

Prostituzioa ezkutuko jarduera ekonomikoa da, eta etekin izugarriak ematen ditu. Oro har, ostalaritza negozioen, eta laguntza, aisialdi, relax, harreman pertsonalen... zerbitzuen atzean ezkututzen da; horien guztien helburua prostituzioan aritzea da ezkutuan.

Egoera horrek guztiak negozioa kontrolatzen duten mafiak aberastea bideratzen du, eta prostituitutako pertsonen onartezinak izango liratekeen lan baldintzak ezartzea ahalbidetzen du

Lege hutsunea dago lan esparruan, eta sektore honetako langileak ez daude inongo lan kontraturen mendean; hortaz, ez dituzte gainerako langileek dituzten gizarte estaldura eta laguntza berberak, lan istripuren bat edo gaixotasun profesionalen bat badute, ezta zurratasun, erretiro edo alarguntasun pentsioa jasotzeko eskubidea ere.

Langabezian badaude, ezin dute saririk edo diru laguntzarik eskatu; kontratua amaitzen bazaie, ez dute azken kitatzea kobratzen; eta, bidegabeki kaleratu dituztela uste badute, ezin dute auzitara jo. Ez dute erakunde sindikalik langile diren neurrian dituzten eskubideak eskatzeko eta babesteko, eta enpresaburuekin lan baldintzak negoziatzeko.

Prostituzioa ez dagoenez gero lan jardueratzat onartuta, ez dago zerga arauen edo zerga ordaintzearen mendean eta, hortaz, diruak inongo zerga kontrolik izan ezean zirkulatzen du. Egoera horrek guztiak negozioa kontrolatzen duten mafiak aberastea bideratzen du, eta euren kontrolpean prostituitutako pertsonen beste edozein sektoretan onartezinak izango liratekeen lan baldintzak ezartzea ahalbidetzen du.

Ez dago prostituzioaren negozioak darabilen zenbateko ekonomikoa kuantifikatu duen azterketarik Nafarroan; gainera, zenbateko hori aldatu egiten da prostituzio motaren arabera, diru sarrera gehienak adierazi gabeak direnez gero, ez dagoelako inongo zerga kontrolik haien gainean.

Klubak eta plaza apartamentuak direla-eta, kalkuluek diote jabe bakoitzak 18.000 eta 24.0000 euro artean irabazten dituela beretzat lan egiten duen emakumezko bakoitzeko; horrenbestez, klub bakoitzak sei bat milioi euroko irabaziak lortzen ditu urtean.

Halaber, ohikoa da prostituzio antolatua munduan beste diru iturri batzuk izatea, hala nola, legez kontrako drogek ematen dituztenak.

Jarduera hau tratatzen den "legez kanpokotasunak" negozioa hedatzen eta sektoreko enpresaburuak aberasten lagundu du; izan ere, enpresaburuak errentagarritasun handia lortu dute euren negozioetan, eta diru sarrera gehienak adierazi beharra saihestu.

Lege hutsune horren ondorioz, prostituzioan jarduten diren negozioen jabeak ostalaritzako gainerako enpresaburuak dituzten betebeharrak juridiko eta fiskal berberen mende daude, nahiz eta prostituzioan jarduten ez diren lokalek baino askoz ere diru sarrera handiagoak eskuratzen dituzten.

Bestalde, Nafarroako lau polizia indarren esku hartzea - Foruzaingoa, Udaltzaingoa, Polizia Nazionala eta Guardia Zibila- Zigor Kodearen bitartez xedatutako zigorrak jazartzera lerratzen da, baina ez dirudi negozio honek eragiten dituen adierazi gabeko etekin izugarriekin lotutako zerga delituetan esku hartu dutenik.

Nafarroako klub bakoitzak sei bat milioi euroko irabaziak lortzen ditu urtean

Prostituzioan jarduten diren negozioak ostalaritzako gainerako enpresaburuak dituzten betebeharrak berberak mende daude, nahiz eta askoz ere diru sarrera handiagoak eskuratzen dituzten

6. prostituzioaren osasun alderdiak

6. PROSTITUZIOAREN OSASUN ALDERDIAK

Osasunerako Munduko Erakundeko Adituen Batzordea Genevan bildu zen 1974. urtean, eta sexu osasunaren lehenengo definizioa planteatu zuen: "Izaki sexualaren elementu somatikoek, emozionalek, intelektualek eta sozialek bat egitea, positiboki aberasgarriak diren eta nortasuna, komunikazioa eta maitasuna indartzen duten bitartekoen bidez".

Kontzeptu hori ugalketa eta patologia alderdiak baino harago dago, eta afektibitate, atsegin eta komunikazio osagaietan jartzen du arreta; **osagai horiek pertsonen bizi estiloari eta kalitateari eragiten diete nabarmen**, eta bizitza eta harreman pertsonalak hobetzen laguntzen dute.

"Sexu eta ugalketa osasuna ongizate fisiko, sozial eta psiko-emozional, eta buruko ongizate egoera da"

1994ko Kairoko Biztanleriari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzian ugalketa osasunaren beste ikuspegi batetaz mintzatu ziren, eta sexu osasuna esplizituki sartu zuten ikuspegi horren barruan: "*Sexu eta ugalketa osasuna ongizate fisiko, sozial eta psiko-emozional, eta buruko ongizate egoera da, ugalketa sistemarekin, eta haren funtzioekin eta prozesuekin lotutako alderdi guztien gaixotasunik edo minik eza hutsa izan beharrean. Horrenbestez, ugalketa osasunak sexu bizitza ona eta arriskurik gabea izateko eta ugaltzeko ahalmena dakar, eta horiek egin ala ez, eta noiz eta zenbatean behin erabakitzeko askatasuna.*

Azken baldintza horrek gizonezkoak eta emakumezkoak informazioa eskuratzeko eta familia plangintza egiteko duten eskubidea dakar inplizituki berekin, baita legez debekatuta ez dauden ugalkortasuna erregulatzeko beste metodo batzuk, metodo seguru, eragingarri, merke eta onargarriak, eta haurdunaldiak eta erditzeak arriskurik gabe eta seme-alaba osasuntsuak izanik ahalbidetuko dituzten osasun arloko arreta zerbitzu egokiak eskuratzeko eskubidea ere" (Biztanleriari eta

Garapenari buruzko Nazioarteko Konferentzia, 1994, 7.2. paragrafoa).

Ezin eztabaidatuzkoa da prostituzioan aritzen diren pertsonak arriskutsuak izan litezkeela osasunaren aldetik, gaixotasun infekziosoak kutsa baitiezazkiekete eta, era berean, beraiek kutsa diezazkioketelako gainerako jendeari. Hartara, babesik gabeko sexu harremanek gaixotasunak hedatzen laguntzen dute, baina "sexu seguruaren" inguruko kultura irakasteko osasun hezkuntzaren alorreko programak zailak dira sexuaren industriako langileen artean ezartzen, hein batean, bezeroek ez dutelako babestu nahi sexu harremanak izateko.

Sexu gaixotasunak harrapatzeko balizko arriskuez gain, garrantzi handia dute aritzen diren jardueratik eratorritako osasun arazoek -arazo ginekologikoak- eta bezeroek eta proxenetek emandako tratu txarrak direla-eta nozitu behar duten indarkeria fisikotik eratorritakoek ere.

Bestalde, kaleko prostituzioan jarduten diren emakumezkoek ez diote arreta handirik ematen osasun fisikoari, prebentzio eta osasunaren babes arloko informaziorik ez dutenez gero. Euren osasuna babesteko beharrezko neurrien berri ez izateaz gain, ez dute osasun kontrolik egiten aldian-aldian, aritzen diren jarduera arrisku handikoa izan arren. Kaleko prostituzioak eta drogazaletasunak hainbat gaixotasun dakarte berekin: sexu bidez transmititutako gaixotasunak (sifilia, gonokokoak eta trikomonak), B hepatitis eta hiesa daude larrienen artean. Gainera, hain larriak ez diren beste arazo batzuk ere dituzte higiene eta elikadura ohitura egokien gabeziaren ondorioz.

Prostituten osasunaren arriskuei buruzko eztabaidaren arretagunea sexu bidez transmititutako gaixotasunak izan diren arren beti, azken ikerketak prostituzioan aritzen diren emakumezkoen artean beste gaixotasun batzuk eta gaixotasun psikikoak -esate baterako, trauma

"Sexu seguruaren" inguruko kultura irakasteko osasun hezkuntzaren alorreko programak zailak dira sexuaren industriako langileen artean ezartzen, hein batean, bezeroek ez dutelako babestu nahi

Azken ikerketak prostituzioan aritzen diren emakumezkoen artean beste gaixotasun batzuk eta gaixotasun psikikoak –esate baterako, trauma ondoko estresa- azaleratu direla frogatzearen ingurukoak dira

Prostituten osasun arretaz arduratzen diren gizarte eta osasun arloko zerbitzuek ez diete euren behar guztiei erantzuten

ondoko estresa- azaleratu direla frogatzearen ingurukoak dira.

Azterketa horien arabera, prostituten gaixotasun psikiko larriak prostituzioan ari diren bitartean jasan behar dituzten eraso fisikoen, mehatxuen eta bortxaketen emaitza dira.

Prostituten osasun arretaz arduratzen diren gizarte eta osasun arloko zerbitzuek ez diete euren behar guztiei erantzuten. Alde horretatik, osasun arloko langileek prostituzioaren eta horretan jarduten diren pertsonen inguruan jarrera negatiboa izatea, eta prostitutek dituzten arazo espezifikoak berri ez izatea nabarmendu litezke, besteak beste. Horren ondorioz, prostitutek ez dute konfiantzarik osasun sektorearen aldera, zerbitzuek ordutegi desegokia dute eta, oro har, arreta eskasa ematen diete sexu bidez transmititutako gaixotasunak eta hiesa prebenitzeari.

Arazo horiek guztiak arintzen ahalegintzearen, "Europap" izeneko lan taldea sortu zen -European Intervention Projects AIDS Prevention for Prostitutes, alegia, Prostituten artean Hiesa Prebenitzeko Europako Esku-hartze Proiektuak-; Europako Batzordeko Kontsumo eta Osasun Zuzendaritza Nagusiak finantzaturako Europa mailako sarea da, eta sexuaren industriako langileen osasuna eta ongizatea sustatzea du helburu, errespetua eta eskubideak, eta kalitateko osasun zerbitzuak eskura ditzaten, eta auzi honetako araudietan aldaketak izan daitezen lortzen ahaleginduz.

1993ko urrian ekin zien jardueri, Europako Batasuneko kide ziren hamaika estaturen arteko sarea ezarri baitzuen; tokian tokiko koordinatzaile bat zegoen herrialde bakoitzean, eta sexuaren industriako langileen artean prebentzioaren arloan esku hartzeko neurriak sustatzea, gauzatzea eta zabaltzea zen hasiera bateko helburua, baita hiesa eta sexu bidez transmititutako beste gaixotasun batzuk kutsatzeko arriskua murriztea ere. Halaber,

gutxieneko esku hartzeak xedatu zituen protokoloa gauzatu zuten, baita ebaluazio metodologia komuna ezarri ere. Gaur egun, Erdialdeko eta Ekialdeko Europako hemezortzi herrialdetan barreiatuta dago sarea, Espainian barne, eta sexuaren industriako langileentzako 400 proiektu lotzen ditu. Herrialde bakoitza tokian tokiko koordinazio batzordeak ordezkatzeko du, medikuek, gizarte langileek eta prostituten beren ordezkariak osatuta dagoenak. Ekarpentik berrienetako bat "Sexuaren industriako profesionalen gidaliburua. Osasun arloko profesionalentzako zuzentarau praktikoak" da: 2003ko uztailean argitaratu zuten, eta sexuaren industriako langileen osasun arloko laguntzan eta prebentzioan lan egiten duten osasun alorreko profesionalentzako aholkuak ditu.

Halaber, prostituzioan hiesa prebenitzeko Europa mailako sarean dihardu Europap sareak 1996. urteaz geroztik TAMPEPekin batera -Transnational AIDS/STD Prevention Among Migrant Prostitutes in Europe, alegia, Hiesaren/STGen Prebentzio Transnazonala Europara Etorritako Prostituten Artean-, eta "Europar prostituzioan aritzen diren pertsonentzako zerbitzuen eskuliburua" argitaratu dute elkarrekin.

Eskuliburu praktikoa da, prostituzioan aritzen direnentzako osasun proiektuak abiatu eta gauzatu nahi dituztenentzako ideiak eta orientabideak dituenak. Eskuliburu horren barruan, nabarmentzekoa da "kultur bitartekaria", prostituzioan jarduten den pertsonaren etnia edo herritartasun bereko pertsona den heinean, haren jokaeran eta erabakietan eragina izaten ari diren kultur eta gizarte mekanismoak identifikatzeko eta antzemateko gauza dena. Pertsona horrek elkarren arteko komunikazioa eta ulermena errazten du, hainbat hizkuntzatan komunikatzeko eta itzultzeko gai da, eta osasun eta sexualitate arloko kultur balio ezberdinen arteko bitartekaritza lana egiten du. Oso eginkizun garrantzitsua du osasun zerbitzuei dagokienez, prostituzioan aritzen diren pertsonen beharrak eta

Kultur bitartekaria

Prostituzioan jarduten den pertsonaren etnia edo herritartasun bereko pertsona den heinean, haren jokaeran eta erabakietan eragina izaten ari diren kultur eta gizarte mekanismoak identifikatzeko eta antzemateko gauza dena

itxaropenak medikuen aurrean planteatzeko gaitasuna duenez gero. Kultur bitartekariak oinarrizko ezaguera izan behar dute hiesaren prebentzioaren, eta herrialdean dauden etorkinen lege eta gizarte eskubideen, eta egoeraren gainean.

Halaber, prostituzioa dagoen inguruetan laguntza zentroak sortzea xedatu du eskuliburu horrek, prostituzioan jarduten diren pertsonak haietara jotzeko aukera izan dezaten. Leku seguruak izan behar dute, prostituitzen diren pertsonak bildu eta euren arazoez mintza ahal izan dezaten beste erabiltzaileen edo langileen aurkakotasuna izan ezean.

Eskuliburuaren bitartez planteatutako beste jardunbide bat telefono bidezko aholkularitza ezartzea da, sexu arloko jardunbidearekin lotutako osasun alderdien ingurukoa; egunean 24 orduz izan beharko luke abian, eta prostituzioan aritzen direnentzat izan beharko luke.

Droga kontsumitzaileak prostituitzeak dakarren arazoari dagokionez, nabarmendu beharra dago drogen efektuek jarrerak alda ditzaketela: esate baterako, arreta txikiagoa eragin dezakete sexu segurua praktikatzea dela-eta. Gainera, abstinentsia sindromeak arriskuak handitu ditzake bezeroak aukeratzea dela-eta.

Benabarnetiko drogen kontsumoa giltzarria da ekar dezakeen infekzio arriskua dela-eta, batez ere, GIBa eta hepatitis transmititzeari dagokienez. Hori guztia ekiditeko, xiringak trukatzeko sistema jarri behar da praktikan.

Crack kontsumoa ere nabarmendu da, baita legezko drogen abusua ere, hala nola, psikoaktiboena, lasaigarriena eta anfetaminena. Alkohol gehiegi kontsumitzea ere arazo larritzat jotzen da.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da prostituzioaren munduan lan egiten duten pertsonentzako osasun

proiektuetan parte hartzen duten langileek drogen efektuen berri izatea, kontsumoaren profilarena, bigarren mailako efektuena eta sexu harreman komertzialetan duten eraginarena, osasunean eta ongizate orokorrean duten eraginaren berri izateaz gain. Hortaz, droga kontsumitzaileekin harremanetan jarriz gero, garrantzizko programek drogen bigarren mailako efektuei eta osasunarekin lotutako arriskuei, gaixotasun kutsakorrek transmititzeko bideei, eta injektatzeko modu seguruei buruzko informazio materiala izan behar dute, baita prebentzio materiala ere, hala nola, orratzak, xiringa garbiak, ur distilatu anpuluak...

Transexualei dagokienez, arazo partikularrak dituzte. Besteak beste, honako hauek aipa ditzakegu:

- Estrogeno bidezko hormonazioa osasun kontrolik izan ezean egiten da askotan, tratamendu mota hau oso arriskutsua izan arren. Batzuetan, kalean erosten dituzte hormonak.
- Kirurgia estetiko tratamenduak osasun arloko titulurik ez duten pertsonak egiten dituzte sarritan, baita silikona infiltrazioak ere. Kostua klinika batean baino txikiagoa da argi eta garbi, eta transexual batzuek horregatik erabiltzen dituzte zerbitzu hauek.
- Buruko osasun arazoak: drogazaletasunak, bulkadak kontrolatu ezina, narritagarritasuna, sexu nortasun gatazkatsuak eragindako larritasuna... Buruko gaixotasun horiek antzematen dira sarrien arreta psikiatrikoa eskatzen duten transexualen artean.
- Transexualek medikuntza pribatura jotzen dute maiz, batetik, osasun sare publikoko profesionalek ez dutelako euren behar espezifikoak berri eta, bestetik, hainbat profesionalek aurreiritziak izan dituztelako euren aldera.

Etorkinek ez dute osasun zerbitzuetara jotzen, eta ez dute hiesa eta sexu bidez transmititutako beste gaixotasun batzuk prebenitzeko eta tratatzeko aukeren gaineko informazioa eskuratzerik

Osasun sistema publikoaren zerbitzuak eta programak ez daude emakumezko hauen behar espezifikoaren arabera egokituta

- Transexualak behar espezifiko hauei erantzuteko egin behar duen inbertsio ekonomikoa oso handia da, eta baliabide ekonomiko gutxi dituzten transexualek titulu ofizialik ez duten eta osasun sistematik kanpo dauden langileengana jo behar dute, trebakuntzarik ezaren eta osasun sistema publikotik hauetako zerbitzu batzuk baztertu izanaren ondorioz.

Arrazoi horiengatik guztiengatik, transexualentzako osasun arloko informazioak ebakuntzen, silikona injekzioen eta hormonak hartzearen inguruko arriskuen aipamena egin beharko luke.

Etorkinen inguruko esku hartzeak direla-eta, beharrezkoa da kultur bitartekariengana eta hezitzaileengana jotzea; izan ere, hezitzaileak ere prostituzioan jarduten dira, eta gaitasun berezia dute sexu seguruari eta osasuna sustatzeari dagokienez. Egoera juridiko arautu gabearen ondorioz, kolektibo honek ez du osasun zerbitzuetara jotzen, eta ez du hiesa eta sexu bidez transmititutako beste gaixotasun batzuk prebenitzeko eta tratatzeko aukeren gaineko informazioa eskuratzerik; horrenbestez, automedikaziora eta sendagaiak merkatu beltzean erostera jotzen du. Gainera, osasun zerbitzu gehienak ez daude kultura askotariko jendearekin lan egiteko prestatuta, eta litekeena da prostituzioan aritzen diren etorkin asko eta asko baztertzea eta gaizki ulertzea.

Horregatik guztiagatik, kolektibo honentzako programa orok eskura dauden gizarte zerbitzuei buruz informatu eta haietara jotzeko modua hobetu behar du, emakumezkoen trafikoa eta beste edozein gehiegikeria edo ustiapen mota salatzea sustatu behar du, pertsona hauek euren eskubideen eta lege egoeraren inguruan informatu behar ditu, eta gizartea pertsona horiek aurre egin behar dieten arazoengatik inguruan informatu behar du, osasun alderdiei erantzuteaz gain.

Prostituitutako emakumezkoei ematen zaien osasun arloko arretari dagokionez, osasun sistema publikoaren zerbitzuak eta programak ez daude emakumezko hauen behar espezifikoaren arabera egokituta.

Zerbitzuetara eta programetara jotzea zailagoa da zentroetako arreta ordutegien zurruntasunagatik, osasun arloko profesionalak prostituziotik eratorritako arazoengatik, inguruan duten ezaguera eskasagatik, kontsulta bakoitzerako ezarritako tarte eskasagatik, eta hizkuntzaren eta kulturen arteko ezberdintasunen berri ez izateak eragindako komunikazio zailtasunengatik; izan ere, emakumezko hauetako gehienak beste herrialde batzuetakoak dira.

Arazo horiek guztiak arintzen ahalegintzearen, Nafarroan bada programa aitzindari bat Andraize Emakumezkoarentzako Arreta Zentroarekin lotutako osasun arloko hezitzaile talde baten esku. Lan handia egiten dute osasun arloko prebentzioaren eta arretaren esparruan, eta euren modus operandi-a Nafarroa osoan barrena ibiltzea, eta sartzen uzten dieten klubei nahi duten prostituentzako hainbat osasun zerbitzu eskaintzea da.

Halaber, Iruñeko Cáritas Diocesana erakundearen Betania zentroko zerbitzu medikoak zuzeneko laguntza eta banabanako jarraipena eskaintzen die, jardunbideak osasun zentro publikoekin koordinatuz.

7. Nafarroako egoera

7. NAFARROAKO EGOERA

Prostituzioaren fenomenoak aldatu egin da Nafarroan azken urteotan, eta honako aldaketa hauek nabarmendu behar dira, besteak beste:

- Bertakoak ordezkatu dituzten prostituta atzeritarrak etorri izana; hartara, ia Espainiako emakumezko bat ere ez da ari prostituzioan.
- Klubak kopurua hazi eta bertako jarduerak antolatua garatu izana -plaza klubak-, etekin ekonomiko handiak eskuratzeko.
- Plaza klubetan lan egiten duten pertsonen mugikortasun handia eta sexu ustiapen etengabea.
- Kaleko prostituzioan jarduten diren drogazaleen kopurua murriztu izana.
- Gizonezkoen eta transexualen prostituzioa garatu izana.
- Bezeroen profila aldatu izana.
- Baliabideak eta sexuaren industriako zerbitzuen eskaintza dibertsifikatu izana.

Kalkuluen arabera, 500 eta 775 prostituta artean daude Nafarroan, eta emakumezkoak dira gehienak. Horietako %85ek klubetan egiten du lan, eta gutxiengoa dira autonomoak edo, bestela esanda, gutxiengoa aritzen dira bere kasa; %10ek, berriz, apartamentuetan egiten du lan, eta %5ek, azkenik, kalean. Prostituten %90 baino gehiago atzerriko etorkinak dira. Nafarroako egungo biztanleria milioi erdi biztanlekoa dela kontuan izanik, Komunitateko proportzioa 700 biztanleko prostituta batekoa dela estimatzen da.

Foru Komunitatean prostituzioan diharduten emakumezko gehienak hirugarren munduko herrialdeetakoak dira, batez ere, Latinoamerikakoak, Karibekoak, Afrikakoak eta Erdialdeko Europako herrialdeetakoak; izan ere, depresio ekonomikoa dute bertan, eta euren motibazio nagusia ekonomikoa da.

Gehienek jarduera hau dute diru iturri bakartzat, bizirik iraun eta jatorrizko familien egoera ekonomikoa hobetzea ahalbidetzen diena. Gutxienean, berriz, baliabide osagarri eta noizbehinkakotzat dute, eta behar gehien duten memento jakinetan jotzen dute prostituziora.

Oro har, prostituzioan diharduen etorkinak badaki zer jardueratan aritu behar duen Nafarroara iritsi aurretik, sektore horretan egin baitu lan aurretik, baina litekeena da apur batzuk mehatxuen bitartez iruzur egin edo behartu izana.

Etorkin gehienek ez dute lan eta egoitza baimenik; hori dela-eta, erakunde mafiosoek eta proxenetek oso sarritan bortxatzen eta ustiatzen dituzte lan arloan.

Prostituzioa biztanleriarik handieneko udalerrietan biltzen da (Iruñean, Tuteran, Tafallan eta Lizarran), eta klub kopuru handi bat ibilgailu gehien ibiltzen den errepedeen ardatzetan dago: Iruña-Zaragoza ardatzean, Iruña-Gasteiz ardatzean eta Iruña-Irun ardatzean. Iruña da sexu zerbitzuen arloan aldaera gehien eta kopururik handiena dagoen Nafarroako udalerria.

Gainera, kontuan izan behar da Nafarroak bost eskualde dituela mugakide, eta eskualdeen arteko errepede sarea ona dela. Faktore horiek Nafarroako sexu zerbitzuak eskatzen dituzten bezeroak eta Foru Komunitateak mugakide dituen autonomia komunitateetako herritarrak inguruetako udalerrietara joatea bideratzen dute.

Foru Komunitatean prostituzioan diharduten emakumezko gehienak hirugarren munduko herrialdeetakoak dira

Etorkin gehienek ez dute lan eta egoitza baimenik

7.1 EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOA KLUBETAN

Emakumezkoak %20 ordaintzen dio klubaren jabeari emandako "zerbitzu" bakoitzeko

37 klub daude gaur egun Nafarroan:

- 23 Iruñean eta Iruñerrian
- 3 Iparraldean
- 2 Lizarra aldean
- 5 Tafalla aldean
- 5 Tuteran aldean

Klub guztien artean, esan liteke horietako hamarrek (%27k) plaza klub gisa funtzionatzen dutela, hau da, emakumezkoak trukatzeko dituztela euren artean, eta klubetan prostituzioan aritzen diren emakumezkoen %48 eta %53 artean egiten dute lan bertan.

Zenbait emakumezko -zortitik behera- baino ez dago hainbat klubetan, eta negozio txikitzat har liteke. Erdibidekoek, berriz, hamabostetik beherako emakumezko kopurua izaten dute, eta klub handiek, azkenik, 35 emakumezko edo gehiago enplegatzen dituzte, eta emakumezkoak trukatzeko eta "alokatzeko" dituzte sarritan.

Bi era daude irabaziak banatzeko. Batetik, emakumezkoak %20ko ehunekoa ordaintzen dio klubaren jabeari emandako "zerbitzu" bakoitzeko eta, bestetik, "plaza" sistema izenekoa dago: emakumezkoak hiru astez jarraian egiten du lan klub berean, eta jabeak eguneko kopuru bat kobratzen dio -oro har, 48 eurokoa- ostatuaren eta mantenuaren trukean. Emakumezkoek bezeroek hartzen dituzten edariak emandako diru sarreren zati bat jasotzen dute betiere.

Klub bateko zerbitzuko prezioa 42 eta 60 euro artekoa da.

7.2 EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOA APARTAMENTUETAN

Nafarroan, 42 eta 82 emakumezko artean jarduten dira prostituzioan apartamentuetan, eta atzerriarrak dira gehienak. Hamalau bat apartamentu daude Iruñean eta

Iruñerrian barrena, eta hiru eta sei emakumezko artean daude apartamentu bakoitzean.

Zerbitzuko ehuneko baten trukean aritzen dira apartamentuetan prostituzioan, baina litekeena da 21 eguneko behin-behineko egonaldien trukean ere jardutea.

Hiru apartamentu mota daude:

- **Erakundeek kontrolatutako apartamentuak:** batez ere, Latinoamerikako eta Ekialdeko Europako erakundeek kontrolatzen dituzte, eta plaza klubentzako funtzionamendua dute. Txandaketa eta mugikortasun geografiko handia dago bertan lan egiten duten emakumezkoen artean, eta hiru astez egoten dira oro har. Uste dugu halako lau apartamentu daudela Iruñean eta Iruñerrian.
- **Apartamentu partikularrak:** mafia antolatukoak izan ezean, apartamentuen jabeak edo alokairu kontratuaren titularrak dira. Halako sei bat apartamentu daude.
- **Prostituzioan askatasunez aritzeko apartamentuak:** zenbait emakumezkoek euren kabuz lan egiteko biltzea erabakitzen dute. Lau bat dira orotara.

Prentsaren bitartez iragartzen da apartamentuetako sexu zerbitzuen eskaintza, eta "zerbitzuko" prezioa 48 eta 60 euro artekoa da.

7.3 EMAKUMEZKOEN PROSTITUZIOA KALEAN

30 bat emakumezko ari dira Nafarroan kaleko prostituzioan, eta horien erdia baino gehiago afrikarrak dira; gehienak Nigeriakoak eta Sierra Leonakoak dira. Euren herrialdeetako proxenetek kontrolatzen dituzte, eta ez dira beti berberak; hortaz, pentsatzekoa da beste

prostituzio mota batzuetan dauden mugikortasun arau berberen mende daudela.

Oraindik bada kaleko prostituzioan hala etengabe, nola noizbehinka diharduen espainiar emakumezko talde txiki bat -hamabi emakumezkoetik beherakoa-, eta drogazaleak dira ia guztiak.

"Zerbitzuko" prezioa apartamentuetan eta klubetan eskatzen dena baino merkeagoa da, eta 18 eta 30 euro artekoa da. Emakumezkoek kopuru horren %20 baino ez dute jasotzen.

7.4 GIZONEZKOEN ETA TRANSEXUALEN PROSTITUZIOA

Bi prostituzio mota horiek askoz urriagoak dira kopuruari dagokionez emakumezkoena baino eta, kalkuluek diotenez, 30 pertsonak baino gutxiagok dihardute jarduera honetan Nafarroan.

Gizonezkoen prostituzioan "laguntza mutilak" -homosexualak eta bisexualak- eta "gigoloak" -bezerotzat emakumezkoak dituzten gizonezkoak- aritzen dira eta, emakumezkoena ez bezala, ez dago antolatuta.

Ez da antzeman gizonezkoen edo transexualen prostituzioan jarduten den klubik existitzen denik, baina jakin badakigu gizonezkoen prostituzioan jarduten direla Iruñeko bi apartamentutan gutxienez. Sexu zerbitzuak prentsako iragarkien bitartez eskaintzen dira, baina askoz urriagoak dira emakumezkoen laguntza eskaintzen dutenak baino.

Bada, ordea, gizonezkoen eta transexualen kaleko prostituzioa existitzen delako berri.

Transexualei dagokienez, euren sexu organoak ez datoz bat euren sexu nortasun psikologikoarekin, nahiz eta

litekeena den sexua aldatzeko ebakuntza egin izana. Prostituzioan jarduten diren emakumezkoek eta gizonezkoek aurre egin behar dieten arazo berberei aurre egin behar izateaz gain, prostituitzen diren transexualek euren sexu nortasunarekin lotutako arazo espezifikoei egin behar diete aurre.

Lau eta zortzi transexual espainiar artean aritzen dira Iruñean prostituzioan, eta horietakoren bat etengabe bizi da hirian. Besteak, berriz, aldi baterako geratzen dira, eta hiriz aldatzen dira lauzpabost hilabetean behin.

Transexualek 30 eta 60 euro artean kobratzen dute "zerbitzuko", autoan edo gelan ematen duten arabera. Gaueko "zerbitzu" bat edo bi ematen dituzte, eta bezeroak finkoak izan ohi dira.

Gizonezkoen 20 bat laguntza mutil daude, ostera, eta gehienak Magrebetik iritsitako legez kontrako etorkinak dira. Espainiarren bat ere badago, baina drogazalea da oro har. 60 eta 90 euro artean kobratzen dute zerbitzuko.

Honako arazo hauei egin behar die aurre nagusiki prostituzioan aritzen den biztanleriaren sektore honek: batetik, ez dago harentzako proiekturik eta, bestetik, zerbitzuen hornidura ez da bere beharren isla.

Sexua saltzen duten gizonezkoak ez dira prostituzioan jarduten diren emakumezkoak bezain ikusgarriak, batez ere, berri gutxiago dugulako beste gizonezko batzuekin ordaindutako sexu harremanak dituzten gizonezkoen inguruan, eta homosexualtasunarekin lotutako tabuak direla-eta.

7.5 LAGUNTZA BALIABIDEAK

Nafarroako Foru Administrazioak gizarte eta osasun arloan jarduteko hainbat plangintza sustatu du, hala nola, "Gizarte Bazterketaren aurka Borrokatzeko Plana",

Ez dago haietzako proiekturik, eta zerbitzuen hornidura ez da euren beharren isla

Foru Administrazioaren plan bakar batek ere ez du aztertu prostituzioaren esparruan egin beharreko ekinbide espezifikorik

"Etorkinak Gizarteratzeko Plana", "Gizarte eta Osasun arloko Arreta Plana" eta "Osasun Foru Plana".

Nolanahi ere, plan horietako bakar batek ere ez du aztertu prostituzioaren esparruan egin beharreko ekinbide espezifikorik.

Oro har, Nafarroan prostituzioan aritzen diren pertsonentzako laguntza arreta eskasa da, eta arazoari ez zaio osotasunean heltzen. Ekimenak guttiz pribatuak edo mistoak dira, eta azken horiek erakunde pribatuek antolatzen dituzte finantzazio publikoz.

Honako hauek dira Nafarroako prostituzioaren esparruan jarduten diren hainbat erakunde:

a. Emakumezkoarentzako arreta zentroetako gizarte eta osasun arloko arreta programa. Ekimen pribatu da, baina itun publikoa izenpetu da Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentuaren eta emakumezkoarentzako arreta zentroen mendeko hitzarmen baten bitartez. Osasun arloko hezitzaile pribatuek osatzen dute, eta klubetako eta apartamentuetako emakumezkoen prostituzioa, gizonezkoena, transexualena eta bezeroak ditu helburu. Nafarroa osoan barrena gauzatzen da. Prostituzioan aritzen diren 450 emakumezko baino gehiago izaten dira urtean zentro hauetan, eta azterketa ginekologikoak egiten dizkiete bertan, baita gizarte laguntza eman ere. Programa 1990. urteaz geroztik dago abian, eta Iruñean -Andraize eta Iturramako Famili Orientazio eta Sexu Heziketarako Zentro ohia-, Tuteran, Tafallan, Lizarran, Etxarrin eta Elizondon dago.

Hiesa eta sexu bidez transmititutako beste gaixotasun batzuk ote dituzten kontrolatzeko analisiak egiten dizkiete zentro hauetan prostitutei, haurdunaldiaren borondatezko etenduraren inguruko informazioa ematen zaie, preserbatiboak banatzen zaizkie, B

hepatitisaren aurkako txertoa jartzen zaie, eta haurdunaldiaren jarraipena egiten zaie.

Oro har, izen faltsua erabiltzen dute emakumezkoek, euren osasun datuak isilpekoak diren arren. Arrazoi horrexegatik, analisisen emaitzak beraiei ematen zaizkie zuzenean, eta inola ere ez klubean jabeei edo bezeroei.

- b. **Hiesaren aurkako herritarren batzordea.** Gizarte ekimen pribatu honen finantzazioa mistoa da, alegia, publikoa eta pribatua. Hezitzaileek eta boluntarioek osatuta dago, eta bere helburua biztanleria hiesa prebenitzearen inguruan ohartaraztea da. Iruñean baino ez du egiten lan.
- c. **Betania zentroa.** Elizaren ekimena da, Iruñeko eta Tuterako Cáritas Diocesana erakundearen mendekoa denez gero. Finantzazio pribatua du, eta Iruñean baino ez du egiten lan. Hezitzaileek, familiako medikuak eta boluntarioek osatzen dute, eta emakumezkoen bazterreko prostituzioa eta transexualak ditu helburu. Okupazio programa egiten dute, eta interesa dutenek eskulanean, eta sukaldaritza, alfabetatze eta espainiera ikastaroetan parte har dezakete, besteak beste.
- d. **Teresita Etxeko boluntarioak.** Elizaren ekimena da, finantzazio pribatua du eta Iruñean baino ez du egiten lan. Boluntarioek osatuta dago, eta emakumezkoen bazterreko prostituzioari ematen dio arreta.
- e. **DYA (Gizarte Arretarako Unitatea).** Gizarte ekimena da, finantzazio mistoa du eta boluntarioek osatzen dute. Iruñean baino ez du egiten lan, eta emakumezkoen bazterreko prostituzioa eta etxerik gabeko pertsonak ditu helburu.

Estatuan ez bezala, Nafarroan ez dago prostituzioaren esparru espezifikoan lan egiten duten erakundeen sarerik, nahiz eta egon badagoen nolabaiteko koordinazioa aurrez aipatutako erakundeen artean.

Prostituzioaren inguruko Erakundeen eta Proiektuen Estatu Sarea existitzen da estatu mailan; esparru honetan lan egiten duten erakundeek eta pertsonak osatzen dute sarea eta, besteak beste, honako zerbitzu hauek eman nahi dizkie komunean kide diren erakundeei: informazio orokorra, osasun eta ginekologia arloko arreta, GIBaren proba eta osasun heziketa. Estatuko 50 bat erakunde zeuden sare honen barruan 2002ko martxoan.

8. ondorioak

8. ONDORIOAK

Beharrezkoa da
prostituzioaren ikuspegi
globala izatea

8.1 PROSTITUZIOA, GIZARTE FENOMENO

Prostituzioa gizarte osoari erasaten dion fenomeno da, eta pertsona batzuek horretan aritzea aukeratu izana edo bezeroek eskaintzen zaizkien sexu zerbitzuak erabiltzea erabaki izana baino harago dago.

Horregatik, beharrezkoa da prostituzioaren ikuspegi globala izatea, gizarteak ematen dion tratamenduak gizarte egituratzen duten balio eta printzipio etiko, sozial eta juridikoak islatzen dituelako.

8.2 ERREALITATEAREN BERRI HOBETO IZATEA

Beharrezkoa da foru
erakundeek azterketa
sakon bat egitea,
prostituzioan aritzen
diren pertsonen bizi
baldintzei heltzearren

Gizarteak oro har ez du prostituzioaren alderdi askoren berri, apenas dagoelako elkartegintzarik prostituzioan aritzen diren pertsonen artean. Ondorioz, hirugarrenek igortzen dute informazioa beti (elkarte pribatuek eta erakunde publikoek), hain zuzen ere, prostitutak birgizarteratzen ahalegintzen direnek errealitatearen berri zuzenean izan ezean.

Sexuaren industriako langileek osatutako hainbat elkarte eratzen ari da gaur egun. "Hetaira" elkarte dugu Madrilan, eta "LICIT" ikerketa taldea, berriz, Bartzelonan; sexuaren industriako langileen eskubideak babestea dute helburu.

Lan baldintzak lan arloko
legedian xedatutako
printzipioen aurkakoak
dira

Nafarroan, ostera, bada esperientziarik prostituzioari buruzko gizarte ikerketaren inguruan, baina beharrezkoa da foru erakundeek azterketa sakon bat egitea, prostituzioan aritzen diren pertsonen bizi baldintzei heldu, eta euren behar eta eskaera errealak analizatzearren. Hartara, prostituten arazoak konpontzeko irtenbide zehatzak eta eragingarriak hartu ahal izango lituzkete.

8.3 PROSTITUTEN LAN BALDINTZAK HOBETZEA

Espanian prostituzioan diharduten pertsonen egungo lan baldintzak Giza Eskubideen Adierazpenaren eta lan arloko legedian xedatutako printzipioen aurkakoak dira.

Sarritan, sektoreko enpresaburuen eta proxeneten mendeko erdi-esklabotasun baldintzak daude prostituzioan aritu ala ez aukeratzeko ustezko askatasunaren atzean.

Horrexegatik, beharrezkoa da prostituten gizarte eta lan baldintzak bermatu eta arautuko dituen eredu juridikoa osatzea, oinarrizko hainbat printzipio aplikatuz langiletzat hartzen ez den kolektibo bati. Funtsezkoa da kontuan izatea prostituzioa legeztatzea ez dela nahikoa, prostituzioan aritzen diren pertsonak erregulatzeko prozesua ere erraztu beharko litzatekeelako; izan ere, dokumenturik gabeko etorkinak dira gehienak.

8.4 LANBIDEA UZTEKO HAUTABIDEAK

Lanbidea utzi nahi duten pertsonak ez dute lan erraza, egungo egoera soziala eta juridikoa dela-eta. Lan merkatuko beste sektore batzuetan sartzeari erraztuko duen baliabiderik ez izateaz gain, sexuaren industriako langile gehienak "legez kanpoko" egoeran dauden dokumenturik gabeko etorkinak dira. Gorabehera horiek araututako sektore profesionaletan sartzeko aukerak mugatzen dituzte nabarmen.

Nafarroako Administrazioak eta hainbat gizarte erakundeek drogazaleei arretoa eta tratamendua emateko programak jarri dituzte abian, laguntza pertsonala eta heziketa emateko proiektuak, laneratze proiektuak, gizarteak baztertuta dauden pertsonentzako diru laguntzak, eta baliabide eta laguntza sozialak... Azken horiek prostituzioan aritzen diren bertako emakumezkoentzat eta transexualentzat dira, batez ere.

Beharrezkoa da prostituten gizarte eta lan baldintzak bermatu eta arautuko dituen eredu juridikoa osatzea

Gizarteratze eta esku hartze eredu berriak ezarri beharko lirateke, jardunbide horiek kolektibo berri hauen errealitatearen arabera egokituz

Inon ere ez da ageri sektore honetako ezein enpresaburu ikertu edo salatu dutenik zerga delitua egotzita

Nolanahi ere, prostituta gehienak atzerritarrak dira gaur egun, eta behar ezberdinak dituzte; hortaz, gizarteratze eta esku hartze eredu berriak ezarri beharko lirateke, jardunbide horiek kolektibo berri hauen errealitatearen arabera egokituz.

Hartara, ezinbestekoa litzateke arautu gabeko egoeran dauden prostituitutako pertsonak legeztatze prozesuak bideratzea, sarritan lan eta egoitza baimenik ez dutelako egin behar duten jarduera bat uzteko aukera izan zezaten.

Halaber, gizarte laguntzak eskuratzea bideratu beharko litzateke, hala nola, etxebizitza soziala, oinarrizko errenta, gizarte lana eta heziketa eta laneratze programak.

Edonola ere, beharrezkoa izango da nahasitako gizarte erakundeen eta erakunde publikoen ahaleginak bat egitea, arazo horiek guztiak konpontzen aurrera egitearren.

8.5 OSASUN ESPARRUKO HOBEKUNTZAK

Prostituzioan diharduten pertsonen osasun fisikoa, eta buru eta sexu osasuna honako hauek mehatxatuta daude larriki: nozitu behar dituzten indarkeriak eta erasoek, lanean aritzen diren inguru osasungaitzak, drogazaletasunak eta kutsa diezazkieketen sexu bidez transmititutako gaixotasunek. Hortaz, osasuna sustatzea, prebentzioa eta osasun heziketa askoz ere konplexuagoa da, baina egungo osasun sistema publikoak ez die euren beharrei erantzuten.

Horregatik guztiagatik, hainbat gabezia konpondu beharko litzateke kolektibo honen osasun arreta hobetzearen, honako hauen bitartez:

- Osasun arloko profesionalen trebakuntza espezifikoaren bitartez

- Osasun zerbitzuak eskuratzea eta arreta hobetuz
- Prostituitutako pertsonentzako osasun arloko arreta programak ugarituz
- Prostituziotik eratorritako arazo psikologikoei arreta emanaz
- Interkomunikazioa hobetuz, gaztelania ez dakiten etorkinak hizkuntza ezagutzak dituzten osasun arloko profesionalak arta ditzaten bideratuz

8.6 ZERGA KONTROLA

Prostituzioaren inguruko negozioaren bolumena inoiz baino gehiago hedatzen ari da Nafarroan, eta proxenetek eta sektoreko enpresaburuek ateratzen dute etekinik handiena eskubide gutxiago dituzten etorkinen kontura.

Irabazi izugarriak ematen dituen negozioa da, eta espekulazioa, zerga ihesa eta dirua zuritzea etengabeak dira, prostituzioa legez kanpoko egoeran dagoela-eta. Nolanahi ere, nabarmena da Foru Ogasunak lege permisibitatea onartu diela izugarrizko etekinak ematen dituen jarduera batean diharduten negozioei.

Horren berri izan arren, inon ere ez da ageri sektore honetako ezein enpresaburu ikertu edo salatu dutenik zerga delitua egotzita.

Horregatik, Foru Ogasunak askoz ere zorrozkiago kontrolatu beharko lituzke enpresaburu hauek, Nafarroan enpresa jarduerak edo jarduera autonomoak gauzatzen dituzten gainerako herritarrek dituzten zerga betebeharrak berberak betetzen dituztela egiaztatzearen.

9. gomendioak

9. GOMENDIOAK

Jasotako txosten guztiak eta ateratako ondorioak ikusirik, egoki iruditzen zaigu honako gomendio hauek ematea:

LEHENENGOA: Prostituzioaren inguruko arazoak Nafarroan duen benetako eraginari buruzko azterketa egitea. Azterketa horri esker, zehaztasun handiagoz heldu ahal izango litzaioke sexu ustiapenaren inguruko egungo fenomenoari, baita prostituzio mota berriei ere, sexu ustiapenerako emakumezkoen trafikoari barne. Analisi hori egin behar da orain arteko jardunbideen eragingarritasunaren eta emaitzen mailaren balantzea egin aurretik, eta egun aplikatu daitekeen lege esparruaren hautabideak eta lege esparru hori aldatzeko aukera analizatzea ahalbidetuko du, prostituitutako pertsonen lan eskubideak onartzearen.

BIGARRENA: Foru erakundeek Prostituitutako Pertsonen Arreta Emateko Plangintza Espezifikoa osatuz esku hartzea. Koordinazio neurri integralak izan beharko lituzke plangintza horrek, sexu ustiapena prebenitu eta prostituzioa utzi nahi duten pertsonen hautabide errealak eskaintzearen, arautu gabeko egoeran dauden prostituitutako pertsonak legezatzeko prozesuak bideratuz.

HIRUGARRENA: Zerga ihesa eta harekin lotutako delituak gehiago ikertzea eta salatzea, enpresaburuen, lokalen eta proxeneten gaineko zerga ikuskapenak emendatuz.

LAUGARRENA: Sektorearen osasun arloko beharrak sakon aztertzea, emakumezkoarentzako arreta zentroetako gizarte eta osasun arloko arreta programa hedatzea eta areagotzea, bertako osasun arloko jardunbideak esparru honetan aritzen diren gizarte erakundeekin koordinatuz, eta prostituzioa dagoen lokalen osasun arloko ikuskapena eta kontrola areagotzea.

BOSGARRENA: Azkenik, eragingarritasun handiagoz jazartzea sektore honetan jasotako delituak, polizia indarren arteko koordinazioa hobetuz, funtzionarioak prostituzioaren inguruko gai espezifikoetan trebatzea, prostituitutako pertsonen aurkako indarkeria eta tratu txarrak prebenitzen nahasaraziz, eta prostituitutako pertsonen justiziara jotzeko bidea hobetzea, salaketa aurkeztu nahi badute.

10. prostituzioari buruzko ekimenak nafarroako parlamentuan

10. PROSTITUZIOARI BURUZKO EKIMENAK NAFARROAKO PARLAMENTUAN

113

PLANAK

Emakumezkoarentzako osasun arloko arreta plana

Izapidetzeko onartuta	NAO	4	1994.01.31
-----------------------	-----	---	------------

EBAZPENAK

Besteak beste, Famili Orientazio eta Sexu Heziketarako Zentroek herritarrei ematen dizkieten zerbitzuen onarpena eta onespena onartzen eta berresten duena

NAO	46	1997.06.19
-----	----	------------

ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erakunde Adierazpena, maiatzaren 24an Bakearen aldeko Emakumezkoen Nazioarteko Eguna dela-eta

Bozera maileen Batzordeak onartuta	NAO	56	27.05.2002
------------------------------------	-----	----	------------

IDATZIZKO GALDERAK

Kontaktua lokalaren inguruko kontrolari buruzko galdera.

Izquierda Unida de Navarra–Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB) talde parlamentarioa

Izapidetzeko onartuta	NAO	86	1998.11.10
-----------------------	-----	----	------------

Idatzizko erantzuna	NAO	56	1999.06.14
---------------------	-----	----	------------

"Prostituzioan hiesa prebenitzeko programa" izeneko saila aurrekontu bidez gauzatzeari buruzko galdera.

Socialistas del Parlamento de Navarra (SPN) talde parlamentarioa

Izapidetzeko onartuta NAO 95 2004.11.8

Prostituzioa dagoen lokalei buruzko galdera

Izquierda Unida de Navarra–Nafarroako Ezker Batua (IUN-NEB) talde parlamentarioa

Izapidetzeko onartuta NAO 95 2004.11.8

BATZORDEEN LAN SAIOAK

SOS-Racismo-SOS Arrazakeria elkartearen ordezkartzarekiko lan saioa, Nafarroako prostituzioari buruzko txostena-dosierra azaltzeko

Nazioarteko Elkarbizitzarako eta Elkartasunerako Batzorde Berezia

Agerraldiaren data 2002.3.14

11. arauen erreferentziak

11. ARAUEN ERREFERENTZIAK

1. Pertsonen Trafikoa eta Besteren Prostituzioaren Ustiapena Itotzeari buruzko 1950eko martxoaren 21eko Hitzarmena. EAO, 230. zk., 1963ko irailak 25.
2. Emakumezkoaren aurkako bazterketa modu oro desagerrarazteko 1979ko abenduaren 18ko hitzarmena. EAO, 69. zk., 1984ko martxoak 21.
3. Emakumezkoaren aurkako indarkeria desagerrarazteari buruzko adierazpena, Batzar Nagusiaren 1993ko abenduaren 20ko 48/104 Ebazpena.
4. Emakumezkoari buruzko mundu mailako IV. konferentzian emandako Pekingo adierazpena (1995eko irailak 14-15).
5. Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Erakundearen Batzarra, 2000ko azaroak 15. EAO, 233. zk., 2003ko irailak 29.
6. Batez ere, emakumezkoen eta haurren trafikoa prebenitzeko, itotzeko eta zigortzeko protokoloa, Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Erakundearen Batzarra osatzen duena, New York, 2000ko azaroak 15. EAO, 296. zk., 2003ko abenduak 11.
7. Migratzaileak lehorrez, itsasoz eta airez legez kontra trafikatzearen aurkako protokoloa, Delinkuentzia Antolatu Transnazionalaren aurkako Nazio Batuen Erakundearen Batzarra osatzen duena, New York, 2000ko azaroak 15. EAO, 295. zk., 2003ko abenduak 10.
8. Uztailaren 19ko 2002/629/JAI Erabakia, gizakien trafikoaren aurkako borrokaren ingurukoa. Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, L Seriea, 203. zk., 2002ko abuztuak 1.
9. Apirilaren 29ko 2004/81/CE Zuzentaraua, hirugarren herrialdeetako biztanleentzako egoitza baimenari aterabidea ematearen ingurukoa, gizakien trafikoaren biktima izandakoak edo legez kontrako immigrazioan lagundu dietenak, eskumena duten agintariei laguntzen badiete. Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, L Seriea, 261. zk., 2004ko abuztuak 6.


10. Apirilaren 21eko 803/2004/CE Erabakia, Daphne II.a (2004-2008) Batasuneko ekintza programa onartu zuena, haurren, gazteen eta emakumezkoen gaineko indarkeria prebenitu, haren aurka borrokatu, eta biktimak eta arrisku taldeak babestearren. Europako Erkidegoen Aldizkari Ofiziala, L Seriea, 143. zk., 2004ko apirilak 30.

12. bibliografia

12. BIBLIOGRAFÍA

- Alicia Bolaños, Nina Parrón, Enric Royo eta Juana María Santana. Debate sobre prostitución y tráfico internacional de mujeres: reflexiones desde una perspectiva de género. 2003ko maiatza
- Emakumezkoen trafikoaren aurkako nazioarteko koalizioa. 10 razones para no legalizar la prostitución. 2003ko martxoa
- Conclusiones del XVI Congreso Estatal de Mujeres Abogadas sobre la Legalización de la Prostitución. Albacete, 2002ko urria
- Espainiako Probintzien eta Udalerrien Federazioaren jardunaldiak. Debate y propuestas para la intervención municipal en materia de prostitución. Fuenlabrada, 2002ko ekainak 12 eta 13
- Abiatze elkarte, SOS Arrazakeria, Hiesaren aurkako Herritarren Batzordea. El oficio de la prostitución en Navarra: estigmas y modo de vida. 2003ko martxoa.
- Prostituzioan hiesa/STGak prebenitzeko Europako Sarea (EUROPAP/TAM-PEP). Desarrollo de servicios para las personas que ejercen la prostitución en Europa: trabajando por la salud. 1998
- Prostituzioari buruzko Espainiako Senatuaren Batzorde Berezia. 2003ko martxoaren 10eko saioa.
- Giza Eskubideen Aldeko Andaluziako Elkarte. Una aproximación a la prostitución y a la industria del sexo. 2003.
- Medicus Mundi. Prostitución ¿problema ético o estético?
- Andaluziako Herritarren Defendatzailea. Informe especial al Parlamento. La prostitución: realidad y políticas de intervención pública en Andalucía. 2002.
- Gabiria «Action de Santé Communautaire avec les personnes prostituées». Au delà du réglementarisme et de l'abolitionnisme: Eclaircissement sur les positions de Cabiria en matière de prostitution. 2002.

- Laura María Agustín. La familia española, la industria del sexo y las migrantes. "Sexualidades: Diversidad y Control Social" en. Barcelona, 2002.
- Garizabal, Cristina. Derechos laborales para las trabajadoras del sexo. • antes en la Industria del Sexo»n. 2003ko apirila.
- Oso Casas, Laura. Estrategias migratorias de las mujeres ecuatorianas y colombianas en situación irregular: servicio doméstico y prostitución en Galicia, Madrid y Pamplona. «Migrantes en la Industria del Sexo»n.
- Souyris, Anne. Prostitutas y mujeres con velo. «Migrantes en la industria del sexo»n.





Defensora
del Pueblo
Ararteko
Navarra • Nafarroa